

mugaldeko herrian eginikako

T O B E R A

Bikzatitan konpondurikako komedia

1961 TORIBIO ALZAGA TEATRO-SARIA

Bizkaiko Ahorro Kaxak Euskaltzaindiari lagunduaz
sortu duen zortzi milla pezetako saria.

OHORETAN: GABRIEL ARESTI.—Gabriel Aresti bilbotarrari emana izan zaio "Toribio Alzaga" teatro saria, "Mugaldeko herrian eginikako Tobera" obrarentzat. Hamasei ikusgarri bazituzten juaizeko Antonio Arruek, Luis Mitxelenak eta Aita Villasantek, eta Arestiren lana dute hoberenetsi, 1933-ko urriaren hamalauan sortu zen Aresti, eta eskualdun idazletan frango ezagutua da, bereziki poeta bezala. Ez da zaharzale, baina herrizale, eta eskuara bizia derabila, batere garbikeriarik gabe. Idaiak ere arras oraikoak ditu, nun ez diren biharkoak edo etzikoak. 1959 Loramendi saria ukan zuen eta maiz izkiriatzen du Egan eta Euskera agerkarietan. Eskualzain urgazle gazteenari gure goresmenak. (*Herriaren 587 lumeroko aurren plamatik.*)

Euskal itxurako herri bateko plazan. Aurreneko zatian, ezkerrean eliza ikusiko da, eta haren kanpandorra, eta eskuman pelota tokia. Erdian etxe zahar batzuk, bat arkitetura onekoa, atariaren gainean noblezi ezkutu bat duena. Mugalde da herria, Mugarte deritzan erresumako azkena; hura igaranez gero, Mugandi hasten da. Azkeneko zatian, erdiko etxe noblea, girlandaz eta galardoaz horniturik ager-

tuko da, udaberriko arratsalde bero eta argi bat izanik Erreboluzio tribunale bat bilduko baita zuleria batean, herrian gertatu ziren egintza batzuk judikatzeraz.

OFIZIOEN IZENAK: 1.º: Atabalaria. 2.º: Mandataria. 3.º: Kapitaina. 4.º: Apaiz jauna. 5.º: Eskola maisu jauna. 6.º: Medikua jauna. 7.º: Alkatea. 8.º: Lehen hordia. 9.º: Beste hordia. 10.º: Maria Joanetegi. 11.º: Belen. Guztiz: Bederatzi gizonetako eta bi andrezko. Gainera: Herriko jentea eta soldadotzako jentea.

KOMEDIAREN DENPORA: Edozein.

AURRENEKO ZATIA

Egunaren lehen orduak dira. Orientean eguzki berriaren argi brintzak agertzen dirade. Noizean behin, oilar baten kurrukua entzun da. Napoleonen denporako uniforme batekin jantzirik, ATABALARIA sartzen da.

ATABALARIA.—(*Atabalean kolpe batzuk eman ondoren.*) Erreboluzioaren izenean, entzun bezate herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agure guztiek, Mugarte benedikatu honetako Buruzagitzaz Nagusiak, Mandatari Berezi bat bidali duela honera, orain hilabete batzuk hemen gertatu ziren egintza harrigarriak iker eta judikatzeraz. (*Atabalean kolpe batzuk ematen ditu. Haien oihartzunean jente batzuk agertuko dira, elizatik apaiz bikario jauna, beltzez jantzirikako sorore zahar eta misteriotsu batzurekin; karrika kantoi batetik senar emazte batzuk, haur mukitsu bat eskutik harturik dakartela, ardandegitik tabernari jauna eta hordi pare.*) Judizioak garantia guztiak eduki detzan, soldado konpainia bat etorri da, eta orain altzatzen dute haien kanpamentua herriaren inguruetan. Konpainia honen manuan, oso kapitain agurgarri eta bizartsu bat etorri da, apaiz jaunaren etxean ostatua hartuko duena. Apaiz jaunaren etxean neskamerik baldin badago, despedi dezala harek, gure kapitainak franko higuintzen baititu andreak. Mandatari Berezi jaunak berriz eskola maisu jaunaren etxean hartuko du ostatua, eta eskola maisuaren etxean neskamerik baldin ezpado, har dezala berehala neska pare eder bat, gure Mandataria oso andre zalea baita. Eta ni, alkate jaunaren etxean sartuko naiz, eta bertan haurrik baldin badago, igor detzala izeba baten etxera, eztizadaten atabalikan apur. Enteratu dira oro?

Iskanbila galanta aterako da herritarren artean. Iskanbila gustia atabalaren kolpeetan isilduko da.

ATABALARIA.—Herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agure guztiak jakin bezate, herritik eztuela inork alderik eginen, eta baldin inor inora joateko premia haundian badago, gure Mandatariaren eskuak firmaturikako pasaporte berezi bat eduki beharko duela. Inguruko baserrietan nobia dadukaten mutileri, etzaie pasaporterik emanen. Erreboluzioak ezpaitio amorioari amorerik ematen.

Lehengoa baino iskanbila haundiagoa egiten da. Atabalariaren kolpeak eta deiadarrak eztira kasik iskanbila horregatik entzuten. Jentea mututzen denean, atabalariak bere hitzaldiari jarraikiko dio.

ATABALARIA.—Gauza ezaguna da, eta gure Buruzagitza Nagusiak sobera daki bakarrik bortxaz eta indarrarekin bentzutuko duela, nola Mugaldeko herri laborari eta baserritarraren artean, erreboluzioak eztuela oihartzun faboregarririk eduki, progresoaren eta libertatearen etsai direlako. Jakin bezate baserritarrek, borondatez egiten ezpadirade erreboluzioaren adiskide, derrigorrean eginen direla.

Kolpe batzuk ematen diskio atabalari.

ATABALARIA.—Ejenplozko justizia partitzera etorri gara. Gure soldado bat hil zen herri honetan, orain hilabete batzuk, eta gure Buruzagitza Nagusiak ezin dakuske honelako egintza nardagarri bat neurri gogorak hartu gabe. Badaki, edo pentsatzen du, lintxamentu bat izan zela hilketa hura, ezta dukala horregatik persona bakar batek bidegabe haretako erantzun beharra, honela erakutsi zuela herri honek erreboluzioari dion gorrotoa eta gaitzerizkoa.

Jentearen artean protesta batzuk entzuten dira, baina atabalaren kolpe pisikor pare batek itoak dira.

ATABALARIA.—Ezkara kastigatzera etorri. Erreboluzioak bentzutu zuenetik aurrerantzean, mugartear guztiak gara anai, gara berdin, gara libre. Erregeen denpora zikinetan, premia ematen zitzaion goikoari, goian zegoelako, eta kastigua behekoari, behean zegoelako. Egun eztago ez goirik ez beherik, guztiok gaude haltura berean, guztiok gara anai, berdin eta libre. Enteratu zarete?

Isiltasun sakon bat da galdera honi ematen zaion erantzuna.

ATABALARIA.—Judikatzer a etorri gara, leialari premioa eman eta desleialari kastigua ematera. Buruzagitza Nagusia herritar guztien aita maitakorra da. Mandatari Berezi bat bidali du honera. Harek, entzun eginen zaitue. Harek entzun, eta zuek berriz probatu, probatu behar duzue erreboluzioaren seme leialak zaretela. Leialtasun hori probatzeko lehen biziko urratsa, etorri garen soldado guztion alimentua, ostatua eta libersioa zuen kargura korrituko da, judizioak dirauen bitartean. Honela, traba eta oztopo gutti iminiko diguzue.

Atabalaria mintzatsen bukatu baino lehen, hutsik geratuko da plaza. Bakarrik hordi biak geratuko dira.

ATABALARIA.—Herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agurre guztiek jakin bezate, Erreboluzioa eztela egin txantzetan ibiltzeko, baizik pobreaken bizi moldea hobetzeko, esklaboari libertatea emateko, gizon guztiak izan ditezin anai, berdin eta libre. Helburu ezin hobe eta haundi hauetara kontrastatzen diren, eta haien kontra aldatzen diren gizon doilor eta prestu ez guztieri, odolarekin eta urkamendiarekin burrukan eginen zaie, eta eztute barkaziorik merezituko.

Inoizkoak baino kolpe pizkorragoekin kastigatzen du atabala.

ATABALARIA.—Herritarrak, Erreboluzioaren mintzoa entzun. Mugar-teko Buruzagitza Nagusiak bidalirikako Mandatari Berezia zuen aurrean dago. Harekin, soldado konpainia bateko kapitaina dator. Herritarrak, nirekin batera deiadar egin: Erreboluzioa eta libertatea, biba, biba!

LEHEN HORDIA.—Fuera, fuera!

ATABALARIA.—Gatiberioa eta miseria, fuera, fuera!

BESTE HORDIA.—Biba, biba!

Hiru soldado eta beste gizon bat sartzen dira. Azken hau lebitaz, kopa kapelaz eta txarolesko zapatez jantzirik. Soldadoak Napoleonen denporako uniformeez, ATABALARIAK dadukanaren parekoek, baina zaharrenarena agirian dago gradokoa dela; beste biak grado gabeko SOLDADOAK dira. Soldado aurrena, zaharrena, KAPITAINA da, eta lebitadunarekin dator mintzatsen, SOLDADOEK eskolta ematen dieten artean. Sartzen diren momentuan bertan, pelota-tokitik doa ATABALARIA. Baina HORDI biak bertan geratzen dira.

MANDATARIA.—Osasun, herritarrak!
 LEHEN HORDIA.—Hala dakartsula Jainkoak zuri ere, gizona.
 KAPITAINA.—Egun on dizuela!
 BIGARREN HORDIA.—Hala ekar!
 MANDATARIA.—Gu errezibitzeko komisioa al zarete?
 BIGARREN HORDIA.—Gu... bada...
 LEHEN HORDIA.—...tabernan geunden...
 BIGARREN HORDIA.—...eta hainbeste zarata entzunik...
 LEHEN HORDIA.—...zer gertatzen zen jakitera...
 BIGARREN HORDIA.—...irten dugu.
 LEHEN HORDIA.—Hori duk eta!
 MANDATARIA.—Eta zer egiten zenuten tabernan, eguneko ordu goiz honetan?
 LEHEN HORDIA.—Bada, guk...
 BIGARREN HORDIA.—...kontu bat gendukan tabernariarekin...
 LEHEN HORDIA.—Hori duk eta!
 BIGARREN HORDIA.—Baserritik... aa... etorri ginaden bart... aa...
 LEHEN HORDIA.—Kontuak guri artez gustatzen zaizkigu, bai?
 BIGARREN HORDIA.—...nola tabernariak ezadukan hemengo dirurikan... aa...
 LEHEN HORDIA.—...bada...
 BIGARREN HORDIA.—...nola bere diru guztia Mugandira ateratzen duen... ee...
 LEHEN HORDIA.—...bada...
 BIGARREN HORDIA.—...nola ezadukan sekula pagatzeko dirurik... ii...
 LEHEN HORDIA.—...bada...
 BIGARREN HORDIA.—...nola bestela ezkenion gure hartzekorik kitatuko... oo...
 LEHEN HORDIA.—...bada...
 BIGARREN HORDIA.—...bada... arnotan diogu kobratu!
 LEHEN HORDIA.—...u!
 BIGARREN HORDIA.—A, e, i, o, u!
 LEHEN HORDIA.—Kukurruku!
 MANDATARIA.—Lotsa gabeak!
 LEHEN HORDIA.—Zure pareak!
 MANDATARIA.—Alde hortik!
 BIGARREN HORDIA.—Ez hori nik!

KAPITAINAK *sablea ateratzen du maginatik eta ebakitzen eztuen aldetikako kolpeekin jaurtikitzen ditu lekutik. Bien bitartean SOLDADO biak firmeko posizioan geratuko dirade, eta bepururik ere ez tute mugituko.*

KAPITAINA.—Hau da soldadotza bati emanikako ongi etorria!

MANDATARIA.—Hordikeria gizarteko izurri pozoatsu bat da.

KAPITAINA.—Izurri eta eritasun hori gizartetik kendu arte ez kara geldituko.

MANDATARIA.—Gizona ezta libre izanen osasuntsua ezten bitartean.

KAPITAINA.—Hori da gure filosofiaren oinarriko premisa lehena.

Biak paseatzen dira plazatik, urduri.

MANDATARIA.—Kapitaina!

KAPITAINA.—Zer?

MANDATARIA.—Nun daude herri honetako agintariak?

KAPITAINA.—Eztakit, mandatari jauna. Baina mugaldeko herrixka koxkor hauetan, jentea ezta goiz zalea, pizka bat alferrak eta nagiak dira. Segurutik eztirela ohetik oraindio jaiki.

MANDATARIA.—Etor ditezila lehen bait lehen.

KAPITAINA.—Soldadoak!

MANDATARIA.—Ekar dezatela alkatea! Harekin eskola maisua, medikua eta bikarioa.

KAPITAINA.—Soldadoa, bost minutu baino lehenago hemen egon behar dute herritar hoiek!

SOLDADOA.—Zure aginduetara!

Badoazi biak.

MANDATARIA.—Entzun, kapitaina. Badakizu oso arduratzen nauela zer egin honek. Alde batetik, hango jente guztiak bere epaia eman du judizioaren gainean. Herri honek Mugarteko jeografiatik kendua izan behar duela. Baina Buruzagitzak problemaren sustraierano allegatu nahi du, ea hemen Erreboluzioaren kontrako zerbait mamitu den, edo kontrara, harekin lokarririk gabeko gauza bat izan zen hilketa hura.

KAPITAINA.—Hori, soldadoak Mugandira ihesik egin ezpazuen.

MANDATARIA.—Kordel guztiak lotu behar dira ongi. Probatu behar dugu lehenbizi soldadoa hil zutela, edo hobeki esanik, hil zela, etzela estranjeriara eskapatu. Gero hil zutela, etzuela berak bere burua hil, edo eritasun batez etzela hil. Gero nork hil zuen. Eztadin okerbiderikan egon, eztadin bidegaberikan egon. Erreboluzioaren justizia eta zuzenbidea bere bizitasun guztian argi dadin.

KAPITAINA.—Eta nola egin liteke guzti hori?

MANDATARIA.—Adizu, kapitaina, egidazu mesede bat. Lehen hemen egon diren mozkorti biak ekar zaizkidazu honera lehen bait lehen, haiek esanen baitgute egiaren pizka bat. Mundu honetan bi per-

son klase daude bakarrik egiak esaten dituztenak, haurrak eta hordiak. Zoaz, arinki eta korrikan, hemengo agintariak ekarriak izan ditezin baino lehenago, ea.

Badoo KAPITAINA. ATABALARIA *sartzen da.*

ATABALARIA.—Osasun dizula, Mandatari Berezi jauna.

MANDATARIA.—Zer ikusten da herritik? Jentea kontent al dago gure etorrerarekin?

ATABALARIA.—Eztirudi.

MANDATARIA.—Nola eztirudiela?

ATABALARIA.—Leiho eta ate guztiak hertsirik daude. Berria barraiatu bide da, gu heldu garena. Eztira herri honetan gure adiskide. Noizean behin, leiho bateko gortina, pizka bat alztatzen da, eta andre jakin nahi baten aurpegia agertzen da, baina berehala, senarraren eskuak eraginik, ezkutatu egiten da begitartea. Zakurrik eta katurik ere ezta ikusten, jauna. Gure bildur dira.

MANDATARIA.—Orduan egiazkoa izan zen gure soldadoaren hilketa. Beste probamenturik ezta behar, akusatua aitorketa baizik.

ATABALARIA.—Dena dago isilik. Eulien hegaldaketa bera ere ezta entzuten. Badirudi hilerri batean sartuak garena. Kanpan dorrearen gurutzea, altzispres bat iruditzen zait batzutan.

MANDATARIA.—Izugarría izanen da gure zihorketa. Eztut hemen harraren gainean harririk utziko. Eskuaren mamia bezain zelaia geratuko da herria.

ATABALARIA.—Eta eliza baten santutasunean biro baten antzean, isiltasun sakon eta misteriotsu honetan, gizon mozkorti eta horditu bi dabilta hortik kalez kale, oihuka eta irrintzika, barrez eta kantuz.

MANDATARIA.—Bi gizon daude behintzat, gure herabe eztirenak. Arnoak ematen duen gizontasunarekin.

ATABALARIA.—Hor datortza, gure kapitain jaunaren sableak eraginik, bultzaturik.

MANDATARIA.—Badaki horrek bizioa nola trata.

ATABALARIA.—Soldadoa hobeki portatzen da haren agindu-pean.

Eliz ostetik kapitaina eta bi hordiak agertzen dira.

ATABALARIA.—Nolako planta ederra dadukan! Lebitaz jantzirik ere, ezagutuko litzaioke kapitantza. Barka bezait, baina hemen ikusten banau, sano hasarratuko da nirekin. Nire obligazioa bete behar dut.

*Atabala joarekin doa ATABALARIA. KAPITAINA eta HORDI
biak MANDATARIARI hurbiltzen zaizkio.*

MANDATARIA.—Aguro ibili zara, kapitaina, zimio pare hau ekarten.

KAPITAINA.—Haien zantzo eta kantek laster eraman naute haiengana.

MANDATARIA.—(HORDI *bieri*.) Herritarrak! Zuek, zer diozue?

LEHEN HORDIA.—Ezkara gu kulpadunak.

MANDATARIA.—Nola?

LEHEN HORDIA.—Eztela gure errua, eztadukagula hemengo gertae-
rekin zer ikusirik.

MANDATARIA.—Niri esan didate zuek izan zinetela gehien ikusi
zirenak.

BIGARREN HORDIA.—Ez, gu ezkara hemengoak.

LEHEN HORDIA.—Gute etxera heltzeko hiru legoa egin behar dira,
oinez.

MANDATARIA.—Baina zure bernak hazkarrak dira. Gainera etzarete
etxeroak, etxean egotea etzaizue gehiegi gustatzen.

LEHEN HORDIA.—Bada... egia da...

BIGARREN HORDIA.—...eztagoela ez jairikan ez bestarikan herri
honetan...

LEHEN HORDIA.—...gure presentzia gaberik zelebra ditezinak...

BIGARREN HORDIA.—Badakizu? Ihazko Santijagoak...

LEHEN HORDIA.—Andre Mari egunean zelebratu ziren...

BIGARREN HORDIA.—...hau plumoniarekin zegoelako.

MANDATARIA.—Eta gero Madalenetan zer gertatu zen?

BIGARREN HORDIA.—Toberak eduki genituen.

LEHEN HORDIA.—Ederrak gero!

BIGARREN HORDIA.—Barreak egin genituen Beñat Larresororekin!

LEHEN HORDIA.—Mutil galanta Beñat Larresoroko!

BIGARREN HORDIA.—Koplari fina! Hura baino finagorik ezta hemen
sekula ikusi!

LEHEN HORDIA.—Urrikari Beñat!

BIGARREN HORDIA.—Heriotze dorpea eman zion soldado harek!

LEHEN HORDIA.—Bai, madarikatua izan bedi!

BIGARREN HORDIA.—Honelako gizonak moldatu ditu Erreboluzioak!

LEHEN HORDIA.—Doilorrak, etoiak, prestuezak, barkaziorik gabekoak!

BIGARREN HORDIA.—Senar bat bere andreak enganatzen baldin badu...

LEHEN HORDIA.—Lasturko zezenek baino adar luzeagoak baldin
badaduzka...

BIGARREN HORDIA.—...eta konturatu ere ezta egin nahi...

LEHEN HORDIA.—Ze eskandalo herrian!

BIGARREN HORDIA.—Bularreko haurrak berak ere mintzatzen ziren
hartaz!

- LEHEN HORDIA.—Gizon batek oiloa bezalakoa baldin badaduka andrea...
- BIGARREN HORDIA.—...eta harek eztu ezagutu nahi izaten...
- LEHEN HORDIA.—...eta gainera dio Ama Birjina baino prestuagoa eta santuagoa dela...
- BIGARREN HORDIA.—...orduaz zuzen da...
- LEHEN HORDIA.—...bere zuzenbidean eta eskubidean dago herria...
- BIGARREN HORDIA.—...inungo toberak egiten badizkio!
- LEHEN HORDIA.—Kontu egizu!
- BIGARREN HORDIA.—Soldado ezkondu bat!
- LEHEN HORDIA.—Nun zegoen erresumaren ohorea!
- BIGARREN HORDIA.—Oilo baten eskuetan, alegia!
- LEHEN HORDIA.—Ze oilo eta ze zezenko!
- BIGARREN HORDIA.—Eskarmentua hartu zuten, ederra eta pare gabekoa!
- LEHEN HORDIA.—Ez ahaztutzekoa!
- BIGARREN HORDIA.—Bai, sekulakoa!
- LEMEN HORDIA.—Eztakizue zer egin genuen?
- BIGARREN HORDIA.—Zuleria bat muntatu genuen plaza erdi erdian.
- LEHEN HORDIA.—Eta komedia bat asmatu genuen!
- BIGARREN HORDIA.—Tobera mustra.
- LEHEN HORDIA.—Beñat Larresoroko izan zen gauza guztiaren arima.
Haren ohorean aitortu behar da.
- BIGARREN HORDIA.—Mutil argia!
- LEHEN HORDIA.—Soldadoaren ofizioa hartu zuen harek komedian.
- BIGARREN HORDIA.—Hemen, lagunak, soldadoaren andrearena.
- LEHEN HORDIA.—Eta honek, zikiriatzalearen ofizioa.
- BIGARREN HORDIA.—Ongi egon zinen zu, mutila!
- LEHEN HORDIA.—Eta zu, haizturrekin? Artaziekin?
- BIGARREN HORDIA.—Ederki egin zenituen zuk haur egitearen minak!
- LEHEN HORDIA.—Eztitu nire andreak alferrik hamabost seme alaba, oro nireak, mundu honetara ekarri.
- BIGARREN HORDIA.—Eta gero, bere frutua sabeletikan bota zuenean?
Eztakizue nolako semea eduki zuen? Eztuzue igarriko! Katu beltz bat! Ha, ha, ha! Hirian eztuzue gure toberaren berririk jakin? Zelebrea!
- LEHEN HORDIA.—Honek, egurrezko guraize haundi pare bat ekarri zuen, gizon baten bernak baino luzeagoa!
- BIGARREN HORDIA.—Egur egunekoa, gero!
- LEHEN HORDIA.—Harekin egin zuen zikiriatzalearen ofizioa! Guztien artean, anketatik eta besoetatik harrapatu genuen Beñat Larresoroko, soldadoaren ofizioa egiten zuen mutila, badakizue.

Ezertarako balio eztuten idiskoak, kapatu behar dira. Behiak eskapatzen uzten dituzten zezenak, idi bihurtu.

BIGARREN HORDIA.—Gizon askorekin ere, hori berberori egin behar litzake sarritan, baina ez bakarrik toberan eta gezurrez, baizik egiaz eta benetan ere bai.

LEHEN HORDIA.—Barreak! Deabrukeria! Ongi asmatzen zituen gure Beñatek komediak! Zikiriatzaleak bere lana akabatū ondoren, bere zer eginaren etekina erakutsi zion jenteari. Zer, eztakizue? Artilezko mataza pare bat, lehengo egunean herriko dendan honek erosi zuena! Barreak! Deabrukeria!

Kapitainak eta Mandatariak barre egitea baizik beste erremediorik ezta dukate. Baina Mandatariaren aurpegira laster bihurtzen da seriotasunaren jela.

MANDATARIA.—Eta esaidazue, jente ona, nun dagoen orain zuen lagun hori... Beñat Larresoroko hori. Honelako mutil argi bat eza-gutzeko gutzia haundian bainago.

LEHEN HORDIA.—Hilerrian urrikaria, gurutze baten azpian.

BIGARREN HORDIA.—Lehen aipatu dizugu, nola hil zuen basoan soldado harek.

MANDATARIA.—Ez, soldado harek ez. Ordenamentu berezia dadukate gure soldadoek, eztezaten inor hil, eztare bizitza defenditzeko. Personen bizitzen eta heriotzen gainean erabakitzeo, izentatuak gara Buruzagitza Nagusiak bidalirikako Mandatari Bereziak.

LEHEN HORDIA.—Hala, Mugarteko hiri nagusietan gertatuko da, baina Mugaldeko herrixka koxkor eta ttiki hauetan, bestela konprenitzen da zuzenbidea.

MANDATARIA.—Nola konprenitu zuen, bada, zuzenbidea, soldado harek?

LEHEN HORDIA.—Oso mindurik geratu zen toberarekin, eta Beñat mendira egurketan joan zen behin...

Lehengo soldado biak agertzen dira, eta lehenbizikoak agur egiten dio kapitainari.

LEHEN SOLDADOA.—Kapitaina, hor hartu ditugu alkatea, apaiza, maisua eta medikua, guztiak preso.

MANDATARIA.—Iguriki dezatela! (Oso hasarraturik geratu da soldadoen sarreretatik.) Zuk, jarraiki! Beñat mendira joan zen behin...

LEHEN HORDIA.—Soldadoarekin egin zuen topo...

BIGARREN HORDIA.—...eta honek, arrenkurak eraginik...

LEHEN HORDIA.—...eskuetan fusila harturik...
 BIGARREN HORDIA.—...tiro batez zilatu zion burua!
 LEHEN HORDIA.—Mendekantza zikina!
 BIGARREN HORDIA.—Bihotz gogorra!
 LEHEN HORDIA.—Pagu zikoitza!
 BIGARREN HORDIA.—Honelako eraile doilorrek, heriotza merezi dute!
 LEHEN HORDIA.—Gainera...
 BIGARREN HORDIA.—...hala diote, eta badirudi egia dela...
 LEHEN HORDIA.—...beste zauri lotsagarriago bat zedukan mutilak
 sabelaren azpian...
 BIGARREN HORDIA.—...eta haragizko bolak imini zizkion eraileak
 esku-arteetan...
 LEHEN HORDIA.—...toberan txantzetan eta burla burlaka Beñatek
 asmatu zuen egintza, besteak egun guztietako bizi modura era-
 man zuen.
 MANDATARIA.—Eta soldadoa, nola hil zen?

Mutu geratsen dira mozkonti biak.

MANDATARIA.—Bai. Zer gertatu zen harekin?
 BIAK.—Eztakigu, jauna.
 MANDATARIA.—(*Oso haserretzen da; deiadarrez mintzatzen da.*)
 Nork hil zuen?
 BIAK.—Eztakigu, jauna.
 MANDATARIA.—(*Lehen hordia lepotik hartuz.*) Zu izan zinen? Nola
 hil zenuen? (*Gogorki astintzen dio burua.*) Ganibet batekin edo
 pistola batekin? Aitor! Konfesa!
 LEHEN HORDIA.—Ni eznaiz kulpaduna, jauna. Horren gainean ez-
 takit nik ezertxo ere; zin egiten dizut, jauna.
 MANDATARIA.—Soldadoak: preso eraman astokilo bi hauk! Eztitezila
 eskapa! Eta arno franko emaezue, edaten.
 SOLDADOA.—Kapitain jaunaren aginduetara!
 MANDATARIA.—Eta etor ditezila lau gizon hoek!
 SOLDADOA.—Kapitain jaunaren aginduetara!

Bakarrik geratsen dira Kapitaina eta Mandataria.

MANDATARIA.—Zoazte, zoazte, arineketan, aguro, denporarik galdu
 gabe!
 KAPITAINA.—Zer deritzazu gauzari?
 MANDATARIA.—Zesarrek bezala esan dezaket: *ueni, uidi, uici*. Alle-
 ga, ikus eta bentzu. Zerbait egin dugu ordu erdi honetan.
 KAPITAINA.—Oso trebea izan zara galderekin.

MANDATARIA.—Gure Erreplubikako soldado bat! Ezin esan dezakegu gizon prestua izan zela. Baina halare, martiri bat izan balitz bezala judikatu behar dugu hauzia. Bestela, alferrikakoak izanen lirake gure zer egin guztiak. Erreplubika alferrik proklamatu genuen. Gure depurazioak alferrik. Erregearen familia guztiaren afusilamentua alferrik. Guztiak alferrik. Hainbeste odol inozent, hainbeste gose, neke eta dolore, alferrik. Badakit, beharbada, judizio hone-tako azken epaiarekin, ezkarela zuzeneko bidetik ibiliko. Justizian, gehienetan, ezpaita zuzenbiderik kausitzen.

KAPITAINA.—Bai. Problema gaitz baten aurrean zara aurkitzen.

MANDATARIA.—Justizi partitzalearen ofizioa ezta erreza, ezta atse-gina. Kulpa baten aurrean ikusten garenean, bi sentimentuk egiten du burrukan gure barnean: alde batetik, kastiguaren premia altza-tzen da Rodaseko koloso bortitz eta poteretsu baten antzean, eta bestetik, birjina dultze baten moduan, bere balagoak eta lausen-guak esaten dizkigu, emaro eta poliki, birtute nardagarri batek: urrikalmentuak. Gizon bat da, okerreko bidetik abiatu dena, eta zuzeneko bidera itzul arazi behar dioguna. Judikatza-leak, bat edo beste hautatu behar du, bi konponketa hoek etsaiak eta kontra-rioak baitira. Orduan bildur izugarri batek asaldatzen gaitu: komeni den konponketa hautatuko dea? Kulpadunaz urrikal-tzen baldin bada, eta gero hau okerreko bidera itzultzen, da-muak eta dolamentuak pisatuko du judikatza-learen buruaren gainetik, ezpaitzuen errotik atera, garau pozoatsu eta zornetsu hura. Eta aldrebes gertatzen baldin bada, damua geratuko zaio barnean, urrikalmentu pizka batekin beharbada, kondenatua bere bizitza guztian gizon prestu bat izanen litzakeena.

KAPITAINA.—Ezlitzaidake zure buru barnean egoterik gustatuko. Bor-titz izan behar duzue. Barneko gatazka eta burrukaldi hori ezta deseagarria.

MANDATARIA.—Gero jenteak, beti pentsatzen du interesak daduzka-gula. Pagatzale hoberenari saltzen gatazka. Eta ezta gure ofizioa ez-tela munduko urre eta zilar guztiarekin pagatzen.

KAPITAINA.—Zugan ongi ikusten da hori; erreboluzioak judikatza-leari ematen dien soldata ezpaita aberatsesia, eta zu soldata ho-rrak eskeintzen duen bizi moldearen arauera bizi zara.

MANDATARIA.—Batzutan, ofizio hau uzteko gutzia etorten zait bu-rura eta arimara. Ni, pozik izanen nintzake, zu bezalako soldado bat. Ofizio horretan ezta duda haundiegirik presentatzen: obe-dientziarekin aski eta sobera da. Edo laboraria izanen nintzake, frutua ongi etorten baldin bada, benedikatua izan dadila Jainkoa, eta txarki baldin badator, benedikatua orduan ere. Baina gu gabe, ezlitzaie erreboluziorik egonen. Gizartearen giltzarria gara, mun-

dua sustengatzen duen oinarria, aberatsaren segurantza eta pobrearen esperantza. Hau pentsatzen dudanean, ez, ez tut nire ofizioa utzi nahi. Bai, nire pentsamentu eta asperkunde gaizto guztiak joaten dira berehala niregandik. (*Karrika kantoi batetik soldadoak eta herriko agintariak agertzen dira.*) Baina utz dezaigun filoSofia aspergarri horri, hor baitortza gure gizonak. Herri gobernariaren izenean, agur guztiori.

ALKATEA.—(*Gizon gaztea da, euskaldun baserritar aberats baten moduan jantzirik dago.*) Egun on dizuela, zuek biori. Mugaldekoko herriaren izenean ongi etorria ematen dizuet. Egoaldi ederra eduki dezazuela gure artean.

MANDATARIA.—Ni naiz Buruzagitza Nagusiaren Mandatari Berezia. Jakinen duze oraingotz, gure soldadotzak herri honetako kargua hartu duela. Hemen presentatzen dizuet gure kapitain jauna.

ALKATEA.—Urte askotarako. Hemen gure apaiz jauna, hemengo bikarioa.

MANDATARIA.—Nunbait ikusiak gara lehen.

APAIZA.—Infernuan ez behintzat. Ni eznaiz han sekulare egon.

MANDATARIA.—Ni bai, zuek eta zuen adiskide eta gogaide aberats eta haundikiek pobrearentzat antolaturikako eta apaindurikako infernuan. Suzkoa ez ezikan, bai gosez eta hotzezko infernu batean. Orain desegintzen dugun infernu haretan.

ALKATEA.—Hau da medikua.

MANDATARIA.—Osasun, mediku jauna.

MEDIKUA.—Ordua zen, inor etor zedin.

MANDATARIA.—Zertan etor?

MEDIKUA.—Urak erre kara bihurtzera.

MANDATARIA.—Madretik atera al ziren inoiz?

MEDIKUA.—Hemengo urek erreka bat zer den ere ez takite. Izingura geldi batean pozoatzen dira.

MANDATARIA.—Uste dut ederki entenituko gabela.

MEDIKUA.—Nik ez tut horrela uste. Asuntu honetan ez tadukat ez entradarik ez salidarik.

MANDATARIA.—Orduan, badakizu zertan etorri garen?

MEDIKUA.—Eta zeinek ez taki?

MANDATARIA.—Zure lekukotasuna laguntza haundikoa izanen zaigu.

MEDIKUA.—Begira, mandatari jauna, nire errespeto guztiak daduzkazu. Baina bizitza honetan haunitz lezio hartu dut, itu eta sogor izaten irakatsi didana. Nik badakit zer gertatu zen hemen, baina ez nola. Oihanean tigre eta lehoien artean gudaldia baldin badago, nori eskatuko zaio lekukotasuna? Hegaztinari eta hienari, duda gabe, ez inoiz satorrari; hau lurpean dabil itsurik. Ni naiz satorra, ezertaz enteratu ez tena.

- ALKATEA.—Eta azkenean, mandatari jauna, zilegi izan bekit gure eskola maisua presenta dizazudan.
- MAISUA.—Zilegi izan bekit niri ere, mandatari jaun agurgarria, nire kunplimentuak presenta dizazkizudan zuri, nire diosalik egiatiena, nire deseorik hoberena, erreboluzioak herriaren alde eta arrazoia-
ren fabore egiten hari den lan haundiagatik. Premiazkoa, beharrezkoa, derrigorrezkoa zen erreboluzioa, eta jente xehea haren zai eta haiduru zegoen. Permitti izadazu, mandatari jauna...
- MANDATARIA.—Zuk eztakizu gauza bat, maisu laguna. Erreboluzioa-
ren aldekoak garenok, ezkara mintzatzen, obratu egiten dugu. Gehienetan, hitz ederrak ahoan, korapiloa golkoan, zuk bezala hitz egiten duenak, zerbait ezkutatu nahi du.
- MAISUA.—Mundu guztiak daki herri honetan, jauna, nola ni hasieratik bertatik aitortu nintzen gobernu zaharraren kontrako eta berriaren aldeko. Naikoa tristura kostatu dit nire ihardukierak.
- MANDATARIA.—Guzti hori bere garaiz probatuko duzu.
- ALKATEA.—Aurtean, jaunak, esperatzen dugu egoera gogarakoa edukiko duzuela gure artean, eta zuen hemengo egoitzak eztuela gure herriaren bizitza normalari oztoporik iminiko.
- MANDATARIA.—Zuk, alkate jauna, sinets arazi nahi diguzu, ilargitik etorri zarela oraintxe. Ez al dakizu zertan etorri garen?
- ALKATEA.—Maliobrak edo?
- MANDATARIA.—Maliobrak!
- ALKATEA.—Edo inbasio baten bildur al da?
- MANDATARIA.—Ez, alkate jauna, ez. Oso aurpegi inozenta imintzen duzu, baina zure bildots larruaren azpitik otso belarria ikusten zaitzu. Ezkaitzuz enganatzen, ez.
- ALKATEA.—Eztut nik inoiz gezurrik asmatu.
- MANDATARIA.—Bai, badadukat zure berri. Eztuzula sekulare gezurrik asmatu, baina hala eta guzti ere eztuzula sekulare batere egiarik esan. Bi uren artean iheri dagoen arraia bezalakoxea zara zu. Kandela bat Jainkoari, eta beste bat deabruari. Guztien lagun, eta ez inoren etsai.
- ALKATEA.—Mandatari jauna, ezin onart dezaket horrelako irainik. Herri honetako alkatea naizela...
- MANDATARIA.—Orain eztago herri honetan alkaterik. Zure kargutik dimititzen duzu, eta Buruzagitza Nagusiak onartu egiten dizu dimisioa. Herri hau, soldadotzaren agintaritza pean geratzen da. Gerra legearen azpian. Ezta inor hemendik ez sartuko ez aterako. Zuek laurok, kapitain jaunaren jagotza pean geratuko zarete.
- ALKATEA.—Protestatu egin behar dut, mandatari jauna.
- MANDATARIA.—Etzara zure protestez baliatuko. Nire ordenamentuak kunplimentatuko dituzu, kapitain jauna. Lau gizon hauek eztute

inorekin hitz eginen, ez etare elkarren artean. Ezta inor bere etxetik aterako. Karrikatik ezta inor paseatuko. Eliza eta Herri etxea zarratuko dira, hala nola eskola ere. Eztu inork eri edo gesorik egoteko eskubiderik edukiko. Jente guztia prest egonen da nire deiari etorteko. Bost minutuko igurikierarik ere, ezta permitituko. Eta judizioa arratsaldeko ordu bietan zelebratuko da, plaza honetan. Egin dezatela soldadoek, etxe zahar horren aurrean zuleria bat, dotorezia eta edertasuna prestatzeko.

KAPITAINA.—Zure ordenamentuak kunplituak izanen dira.

MANDATARIA.—Obedi bedi, bada.

Teloia jatsirik, aurreneko erdia akabatzen da.

AZKENEKO ZATIA

Mugaldeko plaza, egun bereko ordu bietan. Erdiko etxe zahar eta noblea, girlandaz eta galardoaz dago horniturik, eta haren aurrean, metro eta laurdeneko zuleria bat, teatruaren erdia opukatzen duena, Mugarteko bandera gorri urdinarekin apaindua. Teloia alztatzen denean, hutsik dago teatrua; hurrutik atabal baten soinua entzuten da, geroago eta haundiagoa egiten dena, atabalaria teatruan sartzen den arte.

ATABALARIA.—(*Atabala jotzeari utzirik.*) Herri honetako gizon-andre, agure-atso eta neska-mutil guztiek jakin bezate, berehala emanen zaiola hasiera judizioari. (*Kapitaina eta Mandataria sartzen dira. Zuleriara iganik, bertan esertzen dira.*)

KAPITAINA.—Atabalari laguna, soldadoak sar ditezila.

ATABALARIA.—(*Atabala jotz.*) Soldadoak etor ditezila. (*Lau soldado sartzen dira.*)

KAEITAINA.—Soldadoak, apaiza ekar zazue. (*Badoa soldado bat; beste bi zuleriaren aldeetan geratzen dira, eta laugarrena Mandatariaren atzean.*)

MANDATARIA.—Egiaren erdia dadukagu.

KAPITAINA.—Beste erdia ere, zure habileziarekin, laster edukiko dugu.

MANDATARIA.—Eztago niretzako horren gainean batere dudarin; orain bakarrik, zehaztasun bat geratzen zaigu, zer argi.

KAPITAINA.—Eta zein da hori?

MANDATARIA.—Nor izan zen lintxamentua proposatu zuena.

KAPITAINA.—Zehaztasun horrek alda dezake judizioaren sententzia?

MANDATARIA.—Bertan datza gauzaren funtsa. Hori izanen litzake herri honen salbazioa. Hura eta harekin egon zirenak urkatzea-

rekin, kitu. Honela, hamabi urkatukin, hemengo gure beharra kunpliturik geratuko litzake.

KAPITAINA.—Eta bestela?

MANDATARIA.—Bestela, ezlegoke urkamendirik, ezlegoke hilik. Baina epaia latzagoa izanen litzake. Hor dator apaiza. Txarki probatu zaio gartzelamentua. (*Apaiza eta soldadoa sartzen dira. Aurrenekoak kolpe bat daduka begian, moratua.*)

APAIZA.—Eliz Ama Santuaren izenean protestatzen dut, Jainkoaren ministro bat, lapur bat balitz bezala, tratatzen duzuelako, baina nire kontsolamentua da hala tratatu zutela fariseoek Jesukristo gure Jauna bera ere.

MANDATARIA.—Lege Berriaren aurrean, gizon guztiak dira berdin. Gizon klaserik eztago. Ez eska, bada, merezitzen eztuzun esku-biderik.

APAIZA.—Jainko bat dago, eta hura da bortitz eta errespetagarri. Hala nola tratatzen nauzuen ni, hala tratatzen duzue hura ere. Nigan egiten duzuen gaitza, harengan ere egiten duzue.

MANDATARIA.—Hitzak eta hitzak. Ederki egiten dituzue sermoiak, pronuak eta predikuak. Gauza bat da predikatzea, eta beste bat oso diferentea ogia ematea. Gizonak, obrakatik neurtzen ditugu guk. Hala, ez sermoirik guri, kulpituan ezpaitzaude. Gure galderari ihardetsiko diozu egiarekin, eta hala nola den ihardukiera, hala izanen da zure tratamentua ere. Ez ahatz hori. Konpreni duzu? Legearen aurrean zaude, eta zure apaizgoa alde batera utzirik, zure gizontasuna judikatuko dugu, eta gizon prestu bat zarela erabakitzen baldin badugu, gizon prestuek merezi duten errespetoa eta tratamentua eskeiniko dizugu. Konforme?

APAIZA.—Bai, zuekin beste erremediorik ezpaitago.

MANDATARIA.—Orduan, erantzun. Zeinbat urte daramazkitzu Mugalden bikario?

APAIZA.—Hogei.

MANDATARIA.—Orduan, ederki ezagutuko duzu hemengo jentea, ezta?

APAIZA.—Bai, hemengo jentek, kristau onak dira, eta nirekin konfesatzen dira hilero.

MANDATARIA.—Elizan kontatu zaizkitzun ipuien gainean, eztizugu ezer galdetuko. Bakarrrik eliz kanpoan ikusi dituzun gauzen gainean. Beñat Larresoroko ezagutu zenuen?

APAIZA.—Bai, mutil ona.

MANDATARIA.—Badakizu nola hil zen?

APAIZA.—Bai, Joanetegi soldadoak hil zuen.

MANDATARIA.—Zer da tobera bat?

APAIZA.—Herriko norbaitek bizitza ez ona daramanean, eta senar emazte arteko har emanetan gauza itsusi bat dagoenean, mutilek

haiengatik burla egiten dute. Bertsolari bat ekarririk, egiak esaten dizkiete. Askotan, bertsolariak bertso papera ateratzen du. Hori egiten dute, andre alargun bat mutil gazte batekin ezkontzen denean, mutxurdin bat donado batekin ezkontzen denean. Andreak bide okerra hartzen duenean, mutilek toberak ateratzen dizkiete gizonari, eta honek erremedioa bilatzen ezpadio egoerari, haren zezen adarrekin kontent geratzen baldin bada, orduan tobera mustra bat muntatzen zaio.

MANDATARIA.—Eta hemen, Mugalden, sarri egiten al da honelako gauzarik?

APAIZA.—Toberak bai, sarritan kantatzen dira. Motibo bat edo bestegatikan, urte guztietan lauretan edo bostetan. Tobera mustrak berriz oso guttitan. Aurkientza honetan, haran honetako hamabost herrietan, azken hogeitaz urte honetan, hiru tobera mustra muntatu dira bakarrik.

MANDATARIA.—Hemen, Mugalden, inoiz muntatu al da tobera musttraren bat?

APAIZA.—Nik dakidenez, behin bakarrik.

MANDATARIA.—Bai, badakit, Joanetegi soldadoaren andrearen ihardukieragatik, Beñat Larresoroko batek muntatua. Zer deritzazu zuk toberari?

APAIZA.—Gehienetan eztiote inori kalterik egiten, eta bai askotan fabore haundia. Tobera bertsoak oso piper haundikoak dira, baina badakizu zer gertatzen den basoko herri hauetan, jenteak ttikitandik daki jaiotzearen eta heriotzearen arrazoaia, eta eztira eskandalagarriak. Jente gaztea libertitzen da, ezkonduak hobeki portatzen dira bildur arren. Funtsean toberak eztira onak, baina kalte baino fabore gehiago ekarten diote gizaritari.

MANDATARIA.—Eta tobera musttrak?

APAIZA.—Hori beste errusinola baten kantua da. Beti izan naiz ni haien etsaia. Ihaz oso kontrakoa jarri nintzen haien aurrean. Elizan sarrera debekatu nien.

MANDATARIA.—Kalte haundia dakarte orduan.

APAIZA.—Bai, fabore baino. Orduan grinak soltatzeko dirade, eta beti akabatzen da guztia parte txarrean. Deabruak asmatuak gauza da, eta deabruak eramaten du guztia azken finean.

MANDATARIA.—Zer pasatu zen ihaz, bada?

APAIZA.—Ni ez nintzen presente egon.

MANDATARIA.—Eta zein izan zen toberaren ondorioa?

APAIZA.—Guztiek dakite. Joanetegi soldadoak, kontrabandoaren aitzakiarekin, portuetan hil zuen Beñat gurea. Mendekantza zikina.

MANDATARIA.—Eta zer gertatu zitzaion gero Joanetegiri?

APAIZA.—Gauza itsusia, nik benedika eztezedana.

MANDATARIA.—Etzuen atzerrira ihesik egin, orduan?

APAIZA.—Bai, mugarako bidea hartu zuen, bere andrearen atzean.

Gau haretan baserri batetik nentorren ni, kristau bati olioak ematetik, Joanetegirekin topo egin nuenean. Esan zidan andrea maitale batekin eskapatu zitzaiola bestekaldera, eta atzean zoakola ea ebaki ahal zezaiokeen ihesia. Inor ez hiltzeko agindu nion eta erantzun zidan kulpadunak punituak izanen lirakeela. Ezer egin ahal ukan gabe, herrirat bihurtu nintzen, eta eliz aurrean Beñaten andregaiia topatu nuen, izuak eta ikarak aurpegitik zerizkiola. Hitz egin ere ezin zuen, bakarrikan deiadar egin, zoro baten antzean, eta herri guztiak irten zuen kalera. Ze iskanbila, ze zarata! Ze keanean konprenitu nuen, konprenitu genuen, zer gertatu zen. Amoratu pareak, Beñat eta Belen, oihanean igaran zuten eguna, ziza bila, eta soldadoarekin egin zuten topo, harekin aurkitu ziren, maitale enganagarrien bila zoanean. Soldadoak esan zuen kulpadunak punituko zituela, eta Beñat ikusi zuen eta berehala, fusila jaso zuen aurpegira, eta tiro bat bota zion. Belen mintzatzan burkatu zenean, mendekantza eskatzen zuten deiadarrak entzun ziren jentearen artean. Arteak galdu zituzten, eta adimentua eta zentzu ona bihur arazitzeko egiten nituen eginahal guztiak, alferrikakoak ziren. Mundu guztia abiatu zen mendira, neskak eta mutilak, gizonak eta andreak, hutsik geratu zen herria, bakarrik geratu ginen Belen eta biak. Elizan sartu ginen, ezer gerta etzedin, Jainkoari errezatzera, Ama Birjina Doloretakoari otoitz egitera. Baina goian etzuten gure erregurik entzun nahi ukan. Beharbada entenitu zuten Paradisokoek gure orazioak ahozkoak zirela bakarrik, eta ez bihotzezkoak. Gu urrikari bekatariok! Handik ordu betera, iskanbilak eta aldarriak entzun ziren plazan. Belenek, zoro batek bezala, elizatik egin zuen alde, baina ni barnean geratu nintzen, zarata guztia isildu zen arte. Orduan kanpora abiatu nintzen ni ere baina eznuen inor ikusi, bakarrik arbola horretatik zintzilik, Joanetegiren gorpuzt urkatua. Aize haundia egiten zuen, eta hilotzak, aize arrosaren moduan, iparrera eta hegorat egiten zuen jira eta bira. Zer neindikeen nik haren alde? Arbolaren adarretik jatsi nuen lurrera, eta olioak eman. Etxera joan nintzen, triste eta damuz, baina hurrengo goizaldean, biharamuneko zazpiretan, hilotza etzegoen nik utzi nuen lekuan. Etzuen lur santurik hartu, mendiko ezkutuan ehortzi zuten, eztakit nork, eztakit nun. Nire galdera eta azterketa guztiak alferrik izan dira. Isiltasunezko karpusai bat hedatu da nire ardien artean. Hori da dakidan guztia. Egia esan dizut, egia osoa, eta egia ezten gauzarik eztizut esan.

MANDATARIA.—Ederki. Herritar prestu bat bezala portatu zara. Zure prestutasunaren premio, libre geratzen zara, eta judizio osoan hemen presente egotea zilegi izanen zaitzu.

APAIZA.—Asko estimatzen dizut. Unaiak jakin behar du zer gertatzen den bere artaldean.

MANDATARIA.—Medikua sar dadila. Zu, apaiz laguna, eser zaitetz nunbait.

Medikua sartzen da.

MANDATARIA.—Ea zabaldu zaizkan begiak satorrari.

MEDIKUA.—Hemen nadukazu berriz ere, jauna.

MANDATARIA.—Bai, ikusten zaitugu.

MEDIKUA.—Ez naiz kexatzen, ez tu protestatzen.

MANDATARIA.—Badadukazu zergatik kexa, zergatik protesta?

MEDIKUA.—Zer esanen dut? Baietz esanen banu, orduan kexatuko nintzake, eta ezetz esanen banu, ez nintzake kexatuko.

MANDATARIA.—Bai, konprenitzen dizut, kexatu, baina ez kexatu, zara egiten.

MEDIKUA.—Eznuen ezer ikusi, eznuen ezer jakin. Heriotze bi zertifikatu nituen, hemen dakarzkite zertifikatu biak. Hauen kopiak Hiri Nagusian daduzkate. (*Paper bi ateratzen ditu, eta Mandatariari luzatzen dizkio. Honek irakurten ditu.*)

MANDATARIA.—...autopsia eginez geroz... berunezko bala bat garako hutsunean... (*Bestea irakurririk.*) ...aire-falta... seinale more asko gorputzean... (*Faltrikaran gordetzen ditu bi paperak.*)

MANDATARIA.—Ederki, txit ongi... Bai, bai, bai, bai... Gorde eginen ditugu... Lekukotasuneko proba gertuak dira... Baina honekin etzoazi aurrera; lehengo lekuan bertan geratzen zara. Gauzaren bat egonen da, zure buru barnean ezkutatua, antsiarik eman eztiuzuna, gure hauzian argitasuna emanen duena. Hola pasatzen da askotan. Egun batean ikusten duzu nola... (*Kapitainari.*) Kapitain jauna: Ekar dezatela berehala eskola maisua eta alkatea. Eta zortzi soldado haien fusilekin. Izan ditezila tiratzale onak. (*Kapitainari joan eta sartu egiten da teatritik.*) Bai, mediku jauna. Bai, Bizia garratza da. Eztakigu etorkizunaren berri. Zuk behintzat. Nik bai. Oro dakit. Zer gertatuko den eta zer ezten gertatuko. Nire aginduetara dago dena hemen. Zer diodan, hura betetzen da. Bihar goizeko hamarretan eginen duen beroa ere esan dizazuket, termometroak berak ere niri obeditzen didalako. Eta sinesten ezpa didazu... dudatik etzara aterako. Eztakizu? Tiratzale onak ekarri ditugu gurekin. Nun begia, hara tiroa. Pikete buruzagiaren aginduak baino gehiago etzenuke zuk irauten. Nik nahi nukeen mo-

mentuan bertan hilen zineke. Dudarik eztadukazu, ezta? Orduan, zergatik dudatu duzu bihar termometroak nik guratzen dudan beroa markatuko duela? Ederki, ederki, txit ongi, arras ongi... Esaten genuen... Nola batzutan ikusten dugun gauza bat... eta ezkara konturatzen... Beste gauza askorekin baikaude arduraturik... eta arduratzen garen gauzen azpian hamiltzen eta ehorzten da ikusten dugun beste gauza hura... Zure buru barnean aurkitzen da nik behar dudana.

MEDIKUA.—Eta gogoratzen ezpanaiz?

MANDATARIA.—Beste bat gogoratuko da. Begira, hor datortza maisua eta alkatea. Gure artean, *inter nos*, laguna. Aleginak egiten ezpa-dituzu... (*Soldadoak, maisua eta alkatea sartzen dira.*) ...beste batek eginen ditu. Eta beste honek bere bizitza salbatuko du. Begira eskola maisua, nola ikaraz eta dardar datorren. Hau, bere haurtzaroan entzun zuen lehenbiziko hitzaz oroituko da. Ez ukan bildurrik. Maisu jauna, hurbil zaitezi. Zeinbat urte dituzu?

MAISUA.—Hogetamar, jauna.

MANDATARIA.—Edade ederra, bai, oso ederra, osagarri onarekin bizi izateko, halaegia. Baina soldadoak oso gogorrak dira, astokilo koadrila bat direla esanen nuke. Nik esaten diet: gizon honi konfesa arazi zaiozue, eta nola niri eztidan nola konfesa arazitzen dioten batere axolarik, haiek, beren metodoak enplegatzen dituzte. Esanen dizute, anka biak heda itzatzu, eta gero imini bi eskuak lurraren gainean. Hala paratzen dira mutilak zapoketan egiteko. Baina gerta liteke (hain basatiak baitira soldadoak!), soldado batek ostikada bat emanen dizula atzetik ankartean. Hori egiten, zaleak dira soldadoak. Batez ere, hordirik daudenean. Eta nik soldadoeri, konfesa arazitzea hasten dutenean, arnoa ematen diet. Batzutan, alegre nagoenean, koinaka ematen diet. Badakit nire bekatua dela. Baina zer eginen dut? Atsegin dut. Eta horrelako ostikada bat sufritu ezker, zertarako ikusiko dugu andreen edertasuna? Beste batek gozatuko du. Guk ezkenuke gozatzeko indarrik edukiko. Baina dena dela, hobe da nolabait bizi izatea, ez inola ere bizi izatea baino. Hobeki egoten da lurraren gainean, lurraren azpian baino. Ezta hala? Erretira zaitezi. Apaizaren aldean eser zaitezi, ezer esan gaberik, Entera?

APAIZA.—(*Bere lekutikan altsatzen da.*) Mandatari jauna: Goiko Jaunaren izenean, eta Zuzenbidearen izenean, agintzen dizut, ezte-zazun gaiztakeriarik egin. Asmoak ikusten dizkitzut. Badakit nora zoazin, eta ikusten dut bertara allegatzeko edozein bide hartzeko zaudela prest. Eztezala, jauna, odol inozentak paga, odol doilorraren bidegabea.

- MANDATARIA.—Kapitain jauna, gizon hori berriz mintzaten bada, bistatik kenduko didazu. Eztit axola nora eramaten duzun, gartzela edo urkamendira. Berdin dit.
- KAPITAINA.—Nire iritzian hobeki egonen litzake eliz barnean. Eliz gizonak begiratzera bakarrik atera beharko lirake mundura, hala nola mundu gizonak bakarrik begiratzera sartu beharko lirakeen elizan.
- MANDATARIA.—Begira, kapitaina. Hemen ditugu gizon bi. Esan didate hauk direla herriaren alderdi bien arimak. Medikutiarrak eta alkatiarrak. Ezta hemen ezer gertatzen hauen ezagutzarik gabe. Kontrol izugarria daramate hemengo bizitzaren gainean, eta ezta hemen ezer ere mugitzen, ez eta hegaztina baten hegalak, hauen baimentua gabe. Hemen medikuak dio, berak eztakiela deus gure zer eginaren gainean. Ederki jokutzen du satorraren ofizioa. Kargutik dimiti arazi diogulako, gure kontra dago alkatea, gurekin oso hasarraturik dago, baina hasarre horren ostean, zer ezkutatzen da? Martiriaren ofizioa jokutzen du ederki. Eta bere martiritzaren gibelean, bere hasarrearen gibelean, arima oso beltz bat ezkutatzen da, bere aurpegi ilunaren atzean gaiztakeria ilun bat. Zer deritzazu?
- KAPITAINA.—Eztago batere dudarik, niri behintzat etzait apurrena ere kabitzen, aferaren funtsa gizon bi hauetatik batengan dagoela sustraiturik. Bat urkatu behar dugu. Baina zein?
- MANDATARIA.—Biak urkatzen baditugu, erruduna geratuko da kastigaturik.
- KAPITAINA.—Baina bestea inozenta da, ezta duka errurik. Inozent bat kastigatuko duzu.
- MANDATARIA.—Inozentziak eztu premiorik merezi.
- KAPITAINA.—Baina zergatik mereziko du kastigu hori?
- MANDATARIA.—Isiltzen den inozent bat, inozent tonto bat da. Eta tonteriak kastigoa merezitzen du. Biak urkatzen edo afusilatzen baditugu... kriminal bat eta tonto bat afusilatuko ditugu. Munduak eta gobernuak gure egintza estimatuko dute.
- KAPITAINA.—Orduan, haiek erabaki dezatela, demostra dezatela ton-toak eztirena.
- MANDATARIA.—Jaunak, hurbil zaitzte! Zuek zer diozue? Nahi duguna, bilatzen duguna esplikatuko duzue?
- MEDIKUA.—Nik eztakit deus.
- MANDATARIA.—Eta zuk, alkate jauna?
- ALKATE.—Are guttiago.
- MANDATARIA.—Beren buruak kondenatu dituzte. Nik haien epaiaren eta sententziaren azpian firmatu beste, ez tut e giten. Afusila deztatela.

Soldadoen artean ateratzen dira medikua eta alkatea. Minitu erdi baten buruan tiro batzuek entsuten dirade.

MANDATARIA.—Akabatu ziren.

APAIZA.—Jaunak, edo zuen izaera bere izenez aipatzearren: animaliak, Lehen mehatxatu nauzue, berriz edekitzen badut ahoa, aldez edo moldez isilduko nauzuela Eztit niri ez aldeak ez moldeak axolarik, baina nire deskontentamentua, nire protesta esan behar dut. Edozein gauza daidikezue enekin, baina eznaiz isilik geratuko. Zerriak eta hienak baino zikinagoak zarete. Zuek egiten duzuenä egiten duenak, eztu gizonaren izenik merezi.

MANDATARIA.—Kapitain jauna, honela sartzen baldin badira oro gure zer egineon, ezta hau sekulare bukatuko. Leku apartatu batera eramanen duzu aho zabal hau, eztezadan sekula berriz ikus. Gero mintzatuko gara harekin, beharbada.

KAPITAINA.—Ederki. (*Apaizarekin ateratzen da.*)

MANDATARIA.—Eskola maisua, hurbil zaitezi, faborez, elkar hizketa luzea eduki behar baitugu. Esan, esan... Badakizu zuk zer jakin nahi dugun, ezta?

MAISUA.—Mesede bat eskatuko dizut, jauna.

MANDATARIA.—Ezta mesederik, esan.

MAISUA.—Nik hemen deklaratu dudan guztia egia izanen da. Baina egia dioena ezta beti sinetsia. Horregatikan, nik diodana egiaztatzeko, beste persona bat etor dadila eskatzera ausartuko nintzake. Deklarazioak aparte hartuko zaizkigu, hari eta niri. Deklarazio biak berdinak badira, ze beste proba nahi duzue, egia diogula?

MANDATARIA.—Arrazoiarekin mintzatzen zara. Nor da, bada, beste persona hori?

MAISUA.—Haren inguruan gertatu ziren hemengo gertaera guztiak. Inork mundu honetan errurik baldin ezpadaduka, inor mundu honetan elurra baino egia tiagoa baldin bada, nik ekarriko dizut honera. Haren ezpainetatik ezta gezurrik aterako, hala nola hodeietatik ezten ur zikinik eroriko. Eta norbaitek asuntu honekin sufritu badu, bera da hori.

MANDATARIA.—Eta haren izena, Belen da, ezta?

MAISUA.—Nola dakizu?

MANDATARIA.—Gauza gutti dago, nik eztakidanik.

MAISUA.—Orduan, zertarako judikatzen gaituzu?

MANDATARIA.—Ederki. Hari ere hartuko diogu deklarazioa, eta erreboluzioaren bandera gorri eta urdinagatik zin egiten dizut, harek esaten badigu zuk eztioskuzun gauza, aurkientza honetan aurki litekeen haritz artezenetik urkatuko zaitudala. Konforme?

MAISUA.—Bai, akort nator zurekin.

MANDATARIA.—Kapitain jauna, bila dezatela edonundik Belen hori.

Badoa kapitaina.

MANDATARIA.—Has zaitezi.

MAISUA.—Nundik?

MANDATARIA.—Bere hasiera eduki zuen munduak ere.

MAISUA.—Baina hasiera guztiak bezalaxe gogorra izan zen hasiera hura ere.

MANDATARIA.—Esaizu nola ezagutu zenuen Belen hori.

MAISUA.—Ni eznaiz hemengoa, jauna, Mugarteko hegoaldean jaioa naiz, baina herri honetako maisutza eman zidatenetik, hemen bizi izana nago, eta mugaldear bat gehiago kontsideratzen naiz.

MANDATARIA.—Ez ibil errametatik.

MAISUA.—Esan nahi dut, jauna, herri honek bere espiritua dadukala, nik asko maitatzen dudana. Eta Mugalde maitatzen duenak, Belen maitatu behar du.

MANDATARIA.—Ongi, ongi, arras ongi. Ederra, maitagarria eta errekaldeko lamiak baino liluragarriagoa izanez gainera, ze deabru eta ze arraio gertatzen da neska horrekin?

MAISUA.—Udaberriko lorea, sasi arteko pospolina, hamabi ostoko krabelina, ilargi beheran botillatu den txakolina, gauza gozoa eta biguna, herrian zegoen galairik zebratuenak hartu zuen andre gai. Hori izan zen bere zoritxarra. Lehen lorea zena, orain orbela da. Tristerik dabil munduetatik orain Jainkoak kreatu zuen izakirik alegrena.

MANDATARIA.—Eta Maria Joanetegi, nor zen?

MAISUA.—Pentsa litekeen sorginik itsusiena. Begizkoa egin zion Beleni, eta oso osasun txarrarekin ibili zen hau haur denporan. Egun batean, Beñat Larresorokok, ur benedikatuz busti zuen Mariaren gorputz guztia, eta gero asunarekin legortu zion. Gero makila lodi batekin hezur guztiak hautsirik, aurrerantzean inori begizkorik ez egiteko agindu zion sorginari. Orduan, Belenen gorputza kimatzen eta loratzen hasi zen, eta florea allegatu zitzaionean, hemen ikusi den zitroirik doratuena zen.

MANDATARIA.—Nun dago orain Maria Joanetegi hori?

MAISUA.—Mugandira, atzerrira ihes egin zuen.

MANDATARIA.—Eta ezin deklaratu dezake. Uste dut haren deklarazioa ezlitzakeela zurearen parekoa.

MAISUA.—Haren ahotik beti ateratzen da pozoia eta zornea; aker kirastun batekin sartuko nintzake ni, harekin baino lehenago.

MANDATARIA.—Etzaitzu gustatzen?

MAISUA.—Gusta? Hura niri gusta? Amorante lizuna! Herri aldeko

mozkorti eta arlote guztiek gozatu dute haren larrua. Sats eta zima-
maur gehiago aurki liteke haren gorputzean, munduko zerritegi-
rik zikinenean baino.

MANDATARIA.—Mozkortu zara zu inoiz?

MAISUA.—Ni mozkor? Honekin esan nahi duzu ea inoiz izan den hura
nire amorantea?

MANDATARIA.—Bai.

MAISUA.—Eztizut esan, bada, eztagoela inor herri aldean, harek lilu-
ratu eztuena? Sorgina zen. Enkantamentua zedukan. Haien belar
eta ungentuekin, gizonen deseoa zorutzen zituen. Baina batekin
etzion baliorik ukan haren sorgin izateak. Eznintzen ni hura izan,
ez. Beñat Larresoroko izan zen. Bortitza zen mutila, gogorra,
indartsua. Aurpegira barre egiten zion, sorgina, atsoa, ahardia
eta puta deitzen zion.

MANDATARIA.—Eta soldadoak, bien bitartean, zer egiten zuen?

MAISUA.—Etzen ezertaz enteratzen, hura baitzen gizon guztirik atzi-
petuena, enganatuena, liluratuena, zoratuena eta enkantatuena.
Eztuzu sekula ikusi txori errusina bat, sugearen aurrean? Sugea
igaten da errametatik, txoria kantari eta txirriokari dagoen leku-
ra; sugea geldiro doa; erramen artean beste errama bat dirudi.
Txoria dagoen lekura heltzen denean, haren aurrean plantatzen
da, lepoa altzaturik, txistu egiten hasten da. Txoria ezta mugitzen,
ezta atrebitzen. Zer kostatuko litzaioke urrikariari, hegala airean
hedatu eta astindurik, hegaldatera abiatzea? Ezer ez. Baina ezta
mugitzen, ezta atrebitzen. Hipnosia deitzen zaio horri. Eta hala
gertatzen zitzaion Joanetegiri. Sugea eta txoria. Izen polita ko-
media batentzat.

MANDATARIA.—Ipui ederra, komedia ederra asmatu duzu. Gero sugear
bere burua eta mihin pozoatsua jaurtikitzen du txoriaren kontra.
Hala gertatu zen?

MAISUA.—Ez hola. Egun batean sugear aspertzen da, pentsatzen du
txoria ezta mokadu egokia, haren sabel eta tripa haundia ez
asetzeko adinekoa, eta beste baten gainean imintzen ditu begiak.
Harekin eskapatu zen, herri honetan jadanik inork kasorik egiten
etziolako.

MANDATARIA.—Bai?

MAISUA.—Begira. Parabolak alde batera utzirik, gauzak gertatu ziren
bezalaxe esanen dizkitzut. Begira. Mariaren bizioak eta eskanda-
loak haundiegiak ziren, baina are haundiagoa zen haren senarra-
ren lotsa falta. Orduan erabaki zen, mundu guztiak jakin zezala
nolako zen gure andrea, mundu guzti horretatik Joanetegi sol-
dadoa kendu gabe. Eta toberak muntatu ziren.

MANDATARIA.—Bai, tobera musta sekulakoak zelebratu zenituzten.

MAISUA.—Joanetegi komitatu genuen. Han zegoen bera, aurreneko hilaran, eta asko gustatu zitzaion komedia; asko barre egin zuen, eta jenteak gehiago barre egin zion Joanetegiren barrearri, toberari baino. Joanetegiren andrea ezomenzen handik agertu, beharbada alde zurretik zekielako, han zer gertatuko zen. Toberak egin ziren, bai, eta hurrengo egunetan etzen aldakuntza haundirik Joanetegiren bizi moldean egin, baina andrearenean, bai, haundia, toberak gizon guztien begiak argitu zituztelako, eta etzedukan sorginak nor ohera eramán.

MANDATARIA.—Bai, bai, bai. Segi eta jarrai.

MAISUA.—Orduan, tristezia eta hasarrea egin zen sorginaren bihoztean. Eta hortaz bai konturatu zen soldadoa. Honen pentsaera geldia zen, baina segurua. Dudak sartu zitzaizkan buruan, eta andrearen joan etorriez arduratu zen. Hau gaizki zebilen, eta nola inork etzion kasorik egiten, herrian zegoen mutilik gizarajoenaren ingan imini zituen begiak.

MANDATARIA.—Bai, bai, bai. Segi eta jarrai.

MAISUA.—Amoranteak egin ziren, eta egun batean, Joanetegi tabernan zegoen orduan, plazatik agertu ziren, gurdi batekin, eta mugara bidea harturik, arinki abiatu ziren ihesi. Zergatik hautatu zuten egunaren argia beren eskapua egiteko? Inork eztaki. Gau iluna hauta zezaketen, eta hola etzen inor, ordu batzu igaran artean, enteratuko. Baina ez, honelako gauza bat egiteko, desordurik desegokiena hautatu zuten. Eta laster allegatu zitzaion berria Joanetegiri. Guztiok pentsatu genuen horregatik hautatu zutela eguerdia ihes egiteko, edonork ikusi zuelako, maleta eta fardel guztien gainetik, fusil bat. Joanetegik bere zamaria hartu zuen. Biraoka zoan, eta norbait hilen zuela zin egin zuen. Nik banenkien norbait hilen zuela, norbait horrek hura hiltzen ezpazuen lehenago. Eta norbait hil zuen baina ez guk pentsatu genuena.

MANDATARIA.—Bai, guzti hori badakit nik. Nola andreak muga eta portua alkantzatu zuen, eta nola agertu zen herrian Belen zure prenda galant hori, intziriaka eta negarrez, Joanetegik bere senargai hil zuelarik. Eta nola jentea abiatu zen soldadoaren bila. Baina jakin nahi nuke nor izan zen haren bila lehendabizi abiatu zena.

MAISUA.—Jenteak deiadar eta aldarri egiten zuen, zer egin jakin gabe. Mediku jaunak bere behorra hartu zuen, eta inori ezer esan gabe, mendira bidean abiatu zen. Ezkenuen ikusi zelatik zintzilik haren tresna maleta, eta pentsatu genuen mendeku bila zoala.

MANDATARIA.—Orduan?

MAISUA.—Orduan alkateak jenteari esan zion, medikuarekin joan behar genukeela denek, eta hara joan ginen. Joanetegi harrapatu

genuen. Portuan zegoen hau, muga igaratera ausartu gabe, eta bere fusilarekin tiratzen zuen, amoranteak desagertu ziren lekura. Hasarrearren zororik zegoen, aurpegia aldaturik, mutu.

MANDATARIA.—Herrira ekarri zenuten.

MAISUA.—Bai, alkateak bere zamariaren zelara lotu zuen soka luze batekin. Eta honerat heldu ginenean, nola jakin gabe, arbola horretatik urkatu genuen.

MANDATARIA.—Nork imini zion soka lepora?

MAISUA.—Eztakigu. Denak geunden gorrotoarren itsurik. Nor izan zen? Eztakit. Beharbada ni. Beharbada beste norbait. Herri guztia, oro, bakoitza. Baina krimenaren egiazko erruduna, ezkinen gu izan. Maria Joanetegi izan zen. Desordu desegoki hura hautatu zuelako. Bazekien harek Beñat Larresororekin eginen zuela Joanetegik topo bidean, haren atzetik abiatzen baldin bazen. Gainerako guztia igarririk zedukan. Hura da kulpaduna.

MANDATARIA.—Orain, Belen zoragarri horri galdetuko diogu. Etor dadila. (*Belen agertzen da.*) Maisu jauna, zuzen zeunden. Lore ederra da gure Belen, arrosa polita, krabelina zoragarria. Hurbil zaitezi honera, ez ukan bildurrik. Hemen zure amaren magalean baino preziatukoago zara. Belen, Belen. Izen ederra dontzella barentzatekoa. Zeinbat urte dituzu?

BELEN.—Hogei, jauna.

MANDATARIA.—Edaderik xarmangarriena.

BELEN.—Deklarazioa emateko edade guztiak dira onak, jaunak, edadeak ezpadio deklaratzaleari buruko argia kendu.

MANDATARIA.—Aurpegi ederra eta mihin zorrotza. Honelakoak dira anderrik gaitzenak, anderrik deseatuena. Baina niri, andre kon-tuetan, arriskua gustatzen zait. (*Kapitainari hitz egiten dio.*) Kapitain jauna, neskaxa honen deklarazioa sekretua izanen da. Ikusle eta entzule guztiak, zu aurretik egonik, hemendik joanen dira.

MAISUA.—Jauna, hori ezta zilegi.

MANDATARIA.—Zergatik?

MAISUA.—Badakit zure asmoa. Gure judizioaren gainean etzara harrekin mintzatuko. Herrian hedatu da zure berria, nolako agure linburi eta haragi zalea zaren.

MANDATARIA.—Isil zaitezi!

MAISUA.—Eragotziko dizut zuri, aker adurti horri. Eztuzu zure adurrekin lore usain gozoko hori zikinduko.

MANDATARIA.—Kapitaina, alde egin zazue orok hemendik berehalaxe. Eta honi, mihin luze honi, lotsa gabeko honi, ehun zihor kolpe emaikiozue nire partez, erregaloea. (*Oro joaten dira.*) Zu, Belen, ez, etzaitezi joan, nirekin geratuko zara, mintzatu behar baitugu biok.

BELEN.—Ez, utz zaidazu niri ere joaten.

MANDATARIA.—Gera, gera zaitezi. Zuk zure ama edukiko duzu, edo zure aita bat, edo neba ahizpak. Pentsa zazu, haien bizi modua, haien bizitza ere nire eskuetan dagoela.

BELEN.—Etzaitut konprenitzen.

MANDATARIA.—Asko gustatu naiz zurekin, neska, nire bihotza prendatu duzu. (*Belemek alde gustietara begiratsen du, eta zuleriatik jatsi nahi du arintki, baina Mandataria hura baino arinagoa da, eta eskutik harturik, lurrera botatsen du neskatxa.*) Begira, neska, nirekin artez ibil... Eztut nik txantzetan ibili nahi. Horregatik gauzak argiro esanen dizkitzut. Herri honen etorkizuna nire eskuetan dago. Eztuzu ikusi nola afusilatu diren oraintxen gizon bi? Honela afusilatuko ditut hemengo gizon andre guztiak nire gutziari amore ematen ezpadiozu. Entzun? (*Mutil gaste bat sartzen da deiadarrez.*)

MUTILA.—Sorgina! Sorgina etorri da! (*Badoo.*)

MANDATARIA.—Ze arraio gertatzen da? (*Bigarren mutil bat sartzen da.*)

MUTILA.—Sorgina, sorgina, sorgina, sorgina! (*Badoo.*)

MANDATARIA.—Kapitaina! Ager zaitezi! (*Hordi biak agertzen dira.*)

LEHEN HORDIA.—Mandatari jauna!

MANDATARIA.—Nola demonio atera zarete presondegitik?

LEHEN HORDIA.—Bertsolari bi giltzapean edukitzeko, gartzela naikoa haundirik eztago. Badakizu zer gertatu den? Sorgina etorri da! Maria Joanetegi zori gaiztokoa! Orain justizia egin dezakezu!

MANDATARIA.—Bai? Eta nola?

LEHEN HORDIA.—Herri osoak deklaratu du haren kontra. (*Kapitaina, soldadoak, herriko jentea, apaiza, maisua, sartzen dira. Eta gustien aurretik, andre eder eta urtetsu bat.*) Mandataria, hor duzu erruduna. Zabal ditezila zeruak! Ilun dadila eguzkia, zuk hura kastigatzen ezpaduzu!

MARIA.—(*Mandatariari.*) Jauna! Maria Joanetegi naiz. Nire gizona, nire gizon maitea, herri honetan izan zen hila. Eta egiak deklaratzera etorri naiz.

MANDATARIA.—Zer esan dezakezu zure alde?

MARIA.—Ihes egin nuen hemendik, jauna, etzezaten nirekin egin, nire gizonarekin lehen egin zutena. Gure soldadotza honera etorri zela jakin nuen bezain laster, berehala etorri naiz honera ni ere.

MANDATARIA.—Maisu jauna!

MAISUA.—Esan!

MANDATARIA.—Ezagutzen duzu andre hau?

MAISUA.—Bai.

MANDATARIA.—Nor da?

MAISUA.—Bere gizonaren erailea!

MANDATARIA.—Maria Joanetegi andrea! Nork hil zuen zure gizona?

MARIA.—Herri honetako gizon andreek!

MANDATARIA.—Jainkoaren izen sakratua! Baldintza hauetan nola li-
teke inor judikatzaile justu eta zuzena izan? Zer dakit nik orain?
Hauk dira nahastale galantak! Baina nolabait erabaki behar da
hau! Zer eginen dut? (*Jentearen eta soldadoen artean paseatzen*
da.) Norbait izanen da kastigatua! Andrea ala herria. Niri berdin
dit. Eztut herri honetan egun bat pasatu, eta asperturik nago ja-
danikan. Mugarteko bidean paratu behar naiz gau honetan nire
Belenekin, basoko lore koloretsu hau ikus dezaten hirian. Nik
erabaki nahi eztudana, zorteak erabakiko du!

MARIA.—Ez! Justizia parti!

HERRIA.—Zorterik ez! Zuk erabaki zazu!

MANDATARIA.—Aurpegia ematen baldin badu, urkatua izanen da Ma-
ria. Gurutzea ematen baldin badu, herriko etxe guztiak, eliza,
pilota tokia eta edozer gauza lurrarekin berdindua izanen da.
Zortea. Hau izanen da erabakitzalea, juezik artezena.

MUNDU GUZTIA.—Ez.

Ez.

Ez.

Ez.

Ez.

Ez.

Ez.

MANDATARIA.—Diru ona da, erregearen diru zaharra, zilarra. (*Diru*
moeta bat jaurtikitzen du airean, jira biraka.) Aurpegia ala gu-
rutzea? Justiziarik ederrena! (*Kolpe bortitz batekin, oholaren gai-*
nean erorten da dirua. Jentea aldarrika intziriaka abiatzen da.
Mandataria kanpora abiatzen da Belenekin, baina desagertu baino
lehen, kapitainari diotsa.) Kapitain jauna, nire sententzia kunpli
bedi! (*Badoazi. Kapitaina lurrera makurtzen da, dirua hartzeko.*)

Teloia korriturik,

komedia hau akabatzen da.

GALTZAUNDI

Ramos Azkaraté'ren denborako

«Tolosarkeria»

gizonezko bakarrentzat

ANTONIO M.^a LABAYEN

RAMOX. Errena, bertsolari ta aldiz zapatari.

LEXAKA. Gozo ta txokolategillea.

GALTZAUNDI. Dendaria.

“POCOFINO”. Lengusua ta kirakoa.

RODRIGUEZ. Zapatari erdalduna. (Karabinero-izana.)

D. SEBERO. Eskribaua.

MUTIKO bat amar urte ingurukoa.

Tolosa'ko Arkupe plazatxoa 1890 aldian. Arkupetan agertu bitez Galtzaundi'ren dendatxoa ta Ramox'en lan-tokia tresna ta guzi. Alde batera ta bestera bearrezko diran ate ta sartu-ateratzeko tartreak.

(Goiza da.)

EKITALDI BAKARRA

I AGERRALDIA

LEXAKA.—(Kale barrendik datorrela. RAMOX'en lantokiaren aurrean gelditurik. Lesakatarren doñuan mintza bedi.) Egún on, Rámox!

(*Erantzuten ez diola-ta berriz esanez indartsuago.*) Egún on,
Rámox!...

RAMOX.—(*Barrendik.*) Bai gizona! entzun dizut... Egun on!, baiñan
gosaldu arte ezer gutxi on, Lexaka. Zera... buruko miña, plakiya
ta armiarma saria eztarri-zuluan...

(*Agertuaz estul egiñez.*)

LEXAKA.—Kioa kéntzeko goazen bada sagárdotegira... Mokarun bat
izánen da... lagúntzeko...

RAMOX.—Bai! zerutik erorita... mana! Geok zerbait eramaten ezpa-
degu geldituko gera jan-gose!

LEXAKA.—Nik ez dízut bada etxían txokólatia bértzerik...

RAMOX.—Nik emen berriz ubela.

LEXAKA.—(*Par-egiñez.*) Orí txarragoa duzu! Ramox! Zolú-erdiák
utzi itzazu nere eizeko ofñetakoentzako. (*Bota zar batsuek beatsaz
siñalatuaz.*) Ikústén baitituz or azturik dauzka zula. Ez duzu deus
egin.

RAMOX.—Ez jauna! ez! oraintxe ari nitzayen pikia ematen. Gaur ber-
tan bukatuko dizkitzut. Ia lenbaitlen erbiren bat iltzen dezuten,
lagun artian jan dezagun.

LEXAKA.—Zakúrrek arrástoá artzen dute, ta biar ba goaz eizera, se-
guru da erbia ekartzea.

RAMOX.—Zuek beti ba dezute arrastua mendian, baiñan nik erbi usaya
kaxuelan nabaitu nai det... Txortxi'n sagárdotegian...

LEXAKA.—Oráingoan asétzen al zaitugu, gizona!

RAMOX.—Bitartean baraurik egon bear ba det. (*Bere buruarengatik.*)
Kaixo Ramox ireak egin dik! Ez, ez, orain ere eskian ari zait
barrena ta zerbait izango ote da.

LEXAKA.—Bai gizona! Gosáltzeko Galtzaundi'k bakallo puska bat
emango digu... Ez al dago etxean?...

RAMOX.—Bai zera! Aren zai ba gaude! Arategira joana da tripaki
billa. Ark bai mauka!

LEXAKA.—Alaba ere ez al dago etxean?

RAMOX.—Ezta iñor ere! Katurik ere ez! Alaba?... (*Nardaz.*) Or
izango da bazterren batean Rodriguez'en semearekin. Eta dendako
atia irikia utzita gañera...

LEXAKA.—Obeto guretzat. Orrela bakallo puska aukeran artzen al
dugu. Gero ordaingo diogu. Atea zabálik dagon lekuan sartzea ez
duk pekatu... mixerikordiko egintza baizik.

RAMOX.—Ez dago gaizki esana. Gosedunak ezin du itxoin. Orixe egin biar degu. Baiñan Rodriguez aitak ez gaitzala ikusi dendan sartzen. Ixpia, salataria baita ori!

LEXAKA.—Karábinero alena! Zer ajola ote zaio!

RAMOX.—Semia Galtzaundi'ren alabarekin ezkontzia nai baitu ta etxia zaintzen dio beria balitz bezela. Likiskeri zikiña!

LEXAKA.—Zer nai duzu neskatxek egin dezaten, errikosemeak mutilzar gelditzen ba zerate? Kanpotarrekin ezkondu...

RAMOX.—(*Abestuas.*) “Mi padre gobernador
mi tío alkate
mis hermanas maestras
conmigo cásate”...

LEXAKA.—Jakíña! (*Abestuas.*)
Ta Galtzaundi, ta Galtzaundi
apellidua duk ori!...

RAMOX.—Goñi! Zera... (*Asarre bat-batean.*) ; Bueno! ez nago bertso-tako. Gosiak ez du barkatzen. Sartu zaite dendara bakallo puska bat artzera. Nik Rodriguez zainduko det.

LEXAKA.—Baiñan...

RAMOX.—Tira! oraintxe! (*Besotik bultzata sartu araziaz.*) Bakalloa or mai gañian dezu. Puska “dezentia” ekarri. (LEXAKA GALTZAUNDI'nean sarturik dagon bitartean, RAMOX'ek zeletan RODRIGUEZ'en denda aldera begiratzen du.) Zaude lasai! Ez gaitu iñork ikusten! Atera zifiezke...

LEXAKA.—(*Bakallo puska eskuan duala ateriaz.*) Gosáltzeko naikoa izanen dugu. Ogiarekin ez da txarra gazingia ez'pa da.

RAMOX.—Sagardo baxo pare bat geiago eranakin, bapo! (*Bakallo puska artu ta gordeaz.*) Au ez digu iñork kenduko! Rodriguez! (*Aruntz begiratuaz.*) Egin zak lo!

LEXAKA.—Goazen bada... esna ez dedin. Jendearen otsa dator...

RAMOX.—Anka egin dezagun, bai, Arpoxokalera...

LEXAKA.—Gu billa nai gaituna ez da ez joango Santamariko Elizara.

(*Bijoaz.*)

II AGERRALDIA

POCOFINO (bakarra)

(*Bestaldetik sartzen dala ta GALTZAUNDI'ren ate-aurrean gelditurik*) Eup! (*Oiu egiñez.*) Lengusu! Primo...! Ez du entzuten! Ez euskeraz ta ez erderaz...! (*Oiu aundiagoa egiñaz.*) Goñiiii!! Izena esatea

ere alperrik dek...! (*Deadarka.*) Galtzaundiiiiii!! Izengoitiya ere ez!
Ta denda irikiya utzi! Galtzaundii!!

III AGERRALDIA

POCOFINO ta RODRIGUEZ

RODRIGUEZ.—(*Bere etxe barrendik erantzuten diola.*) Ha salido. No hay “naide”.

POCOFINO.—Ederra dek kontua. Emen jo atea ta Rodriguez'ek erantzun. (RODRIGUEZ'i.) ¿No está la hija?

RODRIGUEZ.—¡Tampoco!

(*Kamþora irtenaz.*)

POCOFINO.—Vaya “pormalidá”. Ya estará con tu hijo “lumando el pavo”.

RODRIGUEZ.—Qué se va a hacer... La “juventuz” s'aprovecha. Que trabajen los viejos.

POCOFINO.—Y la tienda “vasía”... Pues ya le voy a “desir” a Galtzaundi.

RODRIGUEZ.—Mi vecino el señor “Galchaundi” está entero de lo que pasa y menda atiende su establecimiento si por un casual... hace falta. Por algo es uno del gremio...

POCOFINO.—Lo que tú eres es “aprovechategui”... (*Berekiko.*) Ik nai deken a ire seme “alperraundi” Galtzaundi'ren alaba “ipur...aun... di...” —kin ezkondu. Guzía etxerako gelditu dedin.

RODRIGUEZ.—No me gustan los líos. Yo soy un honrao industrial.

POCOFINO.—Lo que eres es un más mayor “petral”.

RODRIGUEZ.—(*Asarre.*) A mí no me falta “dengún iznorante”...

POCOFINO.—Lo que te falta es diñero...

RODRIGUEZ.—Y a ti educación...

POCOFINO.—(*Bizi.*) Pues vete a componer zapatos. (*Biskar emanaz.*)

RODRIGUEZ.—Y tú a comer bellota... (*Dendara sartu ta atea itxiaz.*)

POCOFINO.—(*Itzuliaz.*) Más hambre tienes tú, gosepasatu...!

RODRIGUEZ.—(*Berriz atea iriki ta agertuaz.*) Y tú un tragón...!!

(*Atea indarrez itxirik.*)

POCOFINO.—Y tú quedar con ganas! ¡Emonio! Tripa zorri arraioa!

(GALTZAUNDI-doñuan abestuas.)

“...Tenemos viñas
Tenemos trigo
Tenemos mucho aseite...”

IV AGERRALDIA

POCOFINO ta GALTZAUNDI

GALTZAUNDI.—(*Agertuas.*) Zer zan iskamilla ori! Zitala aiz orra-
tiokan! Erretxiña! Beti ba dek errita, burruka ta “sesiyua”...

POCOFINO.—Ez pa akik ba... Rodriguez'ek dizkik erruak... Emen
zebilek beti “ikusmiran”... Ta al ba'du... “luze-arrapan”... Den-
da irikiya utzi baitek...

GALTZAUNDI.—Ori ez! Gizon “ondrauba” dek... Nik esan zioat denda
begiratzeko mataderaño jua naizen bitartian...

POCOFINO.—Orrek nai duena dek emen “muturra sartu”... ta semia
ire alabarekin ezkondu.

GALTZAUNDI.—Ta iri zer? (*Zakar.*)

POCOFINO.—(*Leun.*) Ez orrela jarri baiñan uste diat ire alabari ez
zaiola komeni mutil orrekin ezkontzia! Alper aundi bat dek.

GALTZAUNDI.—“Zozuak beleari ipurbeltz”.

POCOFINO.—Obe biarrez esaten diat. Gañera “soziyo” ta lengusu ge-
ran aldetik zer ikusiya ba diat. Testamentua egiterakuan nitzaz
gogoratuko intzala agindu uan. Eta “ixkritura”-n gauzak garbi
jarri biar dizkiagu.

GALTZAUNDI.—Bai motel, ori guztiya eskribauak antolatuko ziguk eta
egunen batian etorriko zala agindu zidaken.

POCOFINO.—“Ramox” izan dedilla “testigu”. Ark asko zekik gauza
oietan...

GALTZAUNDI.—“Xaxi-letradu” errena ua! Ik aitortu bear didakana
orain dek, zer egin uan joan dan astian emandako milla errealekin.

POCOFINO.—Bada... Txautu! Emen zeukat papera! (*Paper punta bat
sakeletik ateriaz.*) Irakurri zak, irakurri...!

GALTZAUNDI.—(*Papertxo itzuliaz.*) Alperrik dek. Ba dakik ez nai-
zela ibilli “Eskolapiyoetan”. Itzez esaizkidak.

POCOFINO.—(*Oroituas.*) Ba... Kaja bat sardin-zar... ogeita lau libra
txokolate, arrua bat olio... bost kajapiko... ta.

GALTZAUNDI.—Ori al da guztiya...?

POCOFINO.—(*Gogoratuas.*) A! Ta larunbatean ekarri nitun iru bakallo!

GALTAZUNDI.—Nun dira ba...? Emen ez zegok puska koskor au besterik! (*Eskuan arturik.*), lardaskatua gañera!

POCOFINO.—Bi bakallo Zeru Txiki'ko Joxepa-Antoni'k erosi zizkian gure zorraren ordainez... Irugarrenaren erdia... biok erdibana etxerako eraman genduen. Eta beste erdia or izango dek nunbait.

GALTAZUNDI.—Ori ez dek garbitasuna.

POCOFINO.—“Soziedadiak” ala izan oi dituk.

GALTAZUNDI.—“Suziedadia” esan naiko dek... Zera, zikinkeria! Ez natxiok konporme.

POCOFINO.—Ik ez dek baliyo “komerziyorako”.

GALTAZUNDI.—Biok ere obiak gaituk “bebertziorako”... Pattarrik ez al dek erosi?

POCOFINO.—Erari kontuan ez gñala sartuko ez al gendun ba erabaki? Neurriya artzia zaila baita! Beriala kiebra joko genian.

GALTAZUNDI.—Goizaldian barrena berotzeko ez dek txarra. Naiz ez iñori saldu, guretzako bederik.

POCOFINO.—Kontribuziyoa geyago ordaindu biarko gñiñke ta mikelietiai baimena eskatu. Ez zaiguk komeni... (*Etenaz.*) To! Ez al da eskribaua or datorren ori...?

GALTAZUNDI.—(*Datorrenari begiratuaz.*) Ala dek! Don Sebero. Egoki etorri-zetorrek...

POCOFINO.—Ez aztu testamentu ta ixkriturarena!

V AGERRALDIA

Lengoak eta ESKRIBAUA (aldarte txarrean)

ESKRIBAUA.—Jainkoak dizuela egun on!

GALTAZUNDI.—Baita beorreri ere! Ongi etorri!

POCOFINO.—Goiz dabil, Don Sebero. Nik uste nuen aberatsak ez zirala oietik jekitzen berandu arte.

ESKRIBAUA.—Ala izan oi dira zuen usteak... “ustelak”. Zuek baño lenago asten naizela lanean, egingo nuke. Eta elizako itzulia egin ta gero...

POCOFINO.—Guk sagardotegikua berriz!

ESKRIBAUA.—Bai, sinisten det. An uzten dituzute txanponak eta osasuna, Alperkerian egonez.

POCOFINO.—Beok “Kasinuan” bezela...

GALTAZUNDI.—Ago isilik gizona. (*POCOFINO'ri.*)

POCOFINO.—Latzaguak bota zizkiguk berak.

ESKRIBAUA.—Konseju onak ematea da gure bete-bearra.

GALTAZUNDI.—Eskarrikasko, eskribau jauna.

- POCOFINO.—Beste zerbaitera ere etorriko zan beori.
- ESKRIBAUUA.—Baita ere, Egia esan bear da beti. Ramox'ek nere ofietako zarrekin zer egin duan ikustera etorri naiz. Iru aste antolatzeko utzi nizkiola. Ta zapata berri auk miñ ematen didate. Ai! (*Ezin ibilliaz.*) Gertu ez ba ditu nere zapata xaarrak artu ta Rodriguez'i eramango dizkiot.
- POCOFINO.—(*Parrez.*) Ori esan ba'lu lenago! Babak beraz?
- GALTZAUNDI.—(POCOFINO'ri) Motel, ago isilik! (ESKRIBAUUA'ri.) Eseri bedi D. Sebero. Laister etorriko da Ramox...
- ESKRIBAUUA.—Ez daukat itxoiterik. Presa aundiya det...
- POCOFINO.—(*Berekiko.*) Guk berriz "errota".
- GALTZAUNDI.—(*Eskua aoran jartzen diola.*) Itxiko al dek ao ori! (*Besotik elduaz.*) Ua aguro Ramox'engana... Ba-dakik nora...
- POCOFINO.—Bai, Santamari'ko elizara...
- ESKRIBAUUA.—Sagardotegian seguruago...
- GALTZAUNDI.—Beriala etortzeko esaiok. Don Sebero zai daukala. Eseri bedi. (*Alki batean eseri araziaz.*)
- POCOFINO.—Banoa bereala.
- ESKRIBAUUA.—Bai eta Lexaka ere ez da urruti izango ta arentzako ere gaztigu bat. Datorrela ua ere!
- GALTZAUNDI.—Bai asmatu ere! Beori aztiya al da edo zer!
- ESKRIBAUUA.—Eskribauua, eskribauua!

VI AGERRALDIA

GALTZAUNDI ta ESKRIBAUUA

- GALTZAUNDI.—Zerbait artu nai ba du D. Sebero?
- ESKRIBAUUA.—Nere zapata xaarrak artuko nituke. Estuegi baitauzkat berri oiek eta ezin naiz ibilli. Ai! ai!
- GALTZAUNDI.—Bada or izango ditu Ramox'ek konpontzeke...
- ESKRIBAUUA.—Ez daukat bada itxoiterik! Dauden bezela Ramox alper orren eskutatik atera ta Rodriguez'enera eramatera noa oraintxe.
- GALTZAUNDI.—Ez beza ori egin. Nai ba du zapata berriak orman sartu ditzazke ta lasatuko zaizkio...
- ESKRIBAUUA.—Orman ez! kartzelan sartuko nituke batzuen-batzuek!
- GALTZAUNDI.—Lasatu bedi D. Sebero! Zapata zarrak ekarriko dizkiot. Or dauzka Ramox'ek ikutu gabe mai gañean.

(*Dendara sarturik zapatak eskuan ditula agertuko da.*)

ESKRIBAUUA.—Zuek Job santua bera ernegaraziko zenukete... Au miña!

GALTZAUNDI.—Emen dituzu.

(ESKRIBAUUA *eserita dagon alki aurrean belaunikatu ta zapata berriak kentzen lagunduaz saarrak jarriko diskio.*)

ESKRIBAUUA.—(*Atsedean artuz.*) Au besterik da! Eskerrikasko, Gofii. Zuk alegiña egiten dezu ta zurekin itzegin diteke.

GALTZAUNDI.—Neronek orixe nai dizut ba... Etxean naigabe aundiak ditugu alabarekin, Beorrekin konsultatu bearrian nago testamentua nola egin.

ESKRIBAUUA.—Nere lantokia nun dedan ba dakizu. Ezin asiko gaituzu kale ixkiñan letradutzan.

GALTZAUNDI.—Galdera bat egin nai nioke ea alaba gozamenik gabe utzi diteken ala ez. Ez nuke nai Rodriguez'en semearekin ezkondu dedin.

ESKRIBAUUA.—Ezin kenduko diozu legezko duana.

GALTZAUNDI.—Ederra da kontua! Nik irabazitakoa nai ta ez alabari utzi bear, Rodriguez'ek jan dezan... Ondo eman ere!

ESKRIBAUUA.—Ez ezkontzea zendun. Aita izatea errez da baiñan gero seme-alabai etorkizuna eman bear zaie.

GALTZAUNDI.—Ta sui ta erraiñak mantendu! Au da buruaustea! Alabak "dotia" eskatzen dit eta nere sozioak ixkritura ta nik al dakit zer geiago! Testamentua! Ta onek egitan aitortzen diot bildutzen nauela.

ESKRIBAUUA.—Testamentua egiteak ez du iñor iltzen gizona! "Dotia" eman bearra gaitzago da, baiñan alabari zor zaiona ematea obe dezu. Eta zure ondasunak agirian jartzea. Ez ba dezu orrela egiten okerrago zuretzat eta ondorengoentzat... Gero arte...!

(*Abituaz.*)

GALTZAUNDI.—Ondo pentsatutakoan joango natzaizu etxera eskribau jauna. Ba al dijoa...?

ESKRIBAUUA.—Aldamenera bakarrik. Beriala emen naiz.

GALTZAUNDI.—Ramox ere laister agertuko zaigu... errenka. (*Atzeruntz begiratu ta ba datorrela nabaiturik.*) Orra bera! Otsoa aitatu ta otsoa azaldu...! Anima salbo! (*Barrendik abestuz.*)

Iltzerikan ez nuen
lenago pentsatzen...

VII AGERRALDIA

GALTAUNDI ta RAMOX

RAMOX.—Zer da orrenbeste dei! Ez diozute gizonari pakean gosaltzen uzten.

GALTAUNDI.—Ez aiz ba oso aguro etorri. Beti bezela errenka...

RAMOX.—Ire tripa ba'nu globuan etorriko fiiiñuan. Emonio Galtzaundi! Tripaundi!

GALTAUNDI.—Kostata!

RAMOX.—Or barrenen sartutako guziyak ordaindu ba dituk bai. I iltzen aizenian erari guziyak merkatuko dituk.

GALTAUNDI.—I zertara joaten aiz ba sagardotegira, jan-edatera ez bada.

RAMOX.—Gosaltzera! Utsa! Baxo pare bat, bakallo puska batekin.

GALTAUNDI.—(*Bat batean oroituaz.*) Bai! Gure dendatik ostu dekena. Bakallo laurdena! Falta zala antzeman nitxuan... Beraz i izan aiz?

RAMOX.—Ez jauna, ez! Nik ez diat egin jatia besterik! Lexaka'k artu dik dendan iñor etzegolako...

GALTAUNDI.—Ori litxarrerria dek.

RAMOX.—Ez jauna! Ori gosia dek. Ez kezkarik izan, ordainduko diagu. Gu ez gaituk lapurrak!

GALTAUNDI.—A! "Bueno"! (*Lasatuaz.*)

RAMOX.—Nor zan nere billa?

GALTAUNDI.—Zera... Eskribaua!

RAMOX.—Ain goiz? Juzgaduko jende oiek beti auzi billa.

GALTAUNDI.—Ez! zapata billa etorri dek, ez omen dizkiok beñere konpontzen-eta...

RAMOX.—Kompondu? Zeken, zikoitz arrayua! Aren zapatak eskutan artzeak "oskiya" ematen zidak, Ain zeudek haar, okertu ta pitzatuak. Zurrondo orrek obe likek berriyak erosi.

GALTAUNDI.—Berriyak? Jarriak ekarri dizkik baiñan ezin ibilli dek. Komeriantia zirudik. Ai ta oi! Min ematen ziotek nunbait. Estuegiak...

RAMOX.—Olakoari miña poltxikutik dirua ateratzeak eman oi zio.

GALTAUNDI.—Gauza dek bere zapata xaarrak artuta Rodriguez'enera joan dala. Neronek eman bear izan zizkiotat...

RAMOX.—(*Asarre.*) Zefiek agindu dik nere dendan sartzea? Zertarako eman dizkiok? Auzotik baimenik gabe puskek ateratzia litxarrerriya dek...

GALTAUNDI.—Lenago ez uan ori esaten. Miñez dagonari zer egin

bear diok? Gañera edozeñek ukatzen zioke ezer D. Sebero eskribauari.

RAMOX.—Baita “Karlos Setimo’ri” ere! Ori karlista piña naizela! Ifioren etxian baimenik gabe sartzia...

GALTAUNDI.—Zuek zergatik sartu zifiaten eta bakallo puska artu?

RAMOX.—(*Burua axkuretiaz.*) Ori besterik dek. Guk erosi nai genian ta gosiak guztiya barkatzen dik...

GALTAUNDI.—Ik guzirako arrazoiak ba dituk. Batik bat ez lanik egiteko.

RAMOX.—Ez akiak aitatu olakorik... Lana... lana, ba’akik, bakoitzak bere argalkeriyak izaten dizkik eta aitortu biar diat: Ramox ez dek lanerako jayo...

GALTAUNDI.—Aspaldi zekiat ori, baiñan... (*RODRIGUEZ’enera begiratuaz.*) Ago isilik orain, Eskribaua Rodriguez’enetik ateratzera ziak eta zer dioten entzun zagon.

RAMOX.—Arkupia zeletan egiteko yayua dek. Lanian ariko ba’giñan gixan entzungo diagu guztiya...

GALTAUNDI.—Gorde gaitezkan ba, ez zegok gaizki esana.

(*Arkupe atzekoaldean eskutatuz.*)

VIII AGERRALDIA

Lengoak, ESKRIBAUA ta RODRIGUEZ

(*Aurrez-aurreko arkupean. Bata atetik kampora ta bestea barrendik.*)

ESKRIBAUA.—Necesito los zapatos mañana... en eso quedamos, “maestro”.

RODRIGUEZ.—Pierda “cuidiau”, señor notario... uno no es como esos otros...

GALTAUNDI.—Guregatik ari dek. Entzuten al dek?

RAMOX.—Losintxakerin. Zerri arrayua! Orrek ire diruak nai dizkik.

GALTAUNDI.—Ba zegok pizka baterako.

RAMOX.—Ba ezpa... egin zak ondo testamentua...

GALTAUNDI.—Zer ba... Ez diat iltzeko asmorik.

RODRIGUEZ.—(*Beste aldean.*) A ver si uztez s’acuerda d’hacer los papeles para el casorio de mi hijo. ¡Que uno no sabe de letras!

ESKRIBAUA.—Antes es preciso el consentimiento de los padres.

RODRIGUEZ.—Pues el mío lo tiene “ustez”, aunque no sé firmar.

ESKRIBAUA.—Todo se irá arreglando. Le tendré al corriente.

RAMOX.—(GALTZAUNDI'ri.) Entzuten al dek? Semia ire alabarekin ezkondu nai dik.

GALTZAUNDI.—Nere alabari esateko guztiyak esan zizkioat baiñan al-perrik! Neskatxak ezkontzeko amorraziyua artzen duanian...

RAMOX.—Nere bertsuak kantatzia bezelakorik ez dek. (*Abestuas.*)

“Euskal Erriko neskatxatxuak
esnatu zaitezte arren
zerengatikan gaitz pegakorra
dabilkizute ondoren.”

GALTZAUNDI.—Ago isilik!!

RAMOX.—Eskribaua kale-barrenera dijuala zirudik. Ez etortzea obe.

GALTZAUNDI.—Laister egingo dik jira-buelta.

(*Beste aldean.*)

ESKRIBAUA.—Adiós, Rodríguez. ¡Vuelvo en seguida! (*Dijoala.*)

RODRIGUEZ.—¡Hasta luego! (*Dendako atea itxiaz.*)

GALTZAUNDI.—Emen dizkiagu bestiak... iskamilla borobiltzeko.

RAMOX.—Falta ziranak.

IX AGERRALDIA

RAMOX, GALTZAUNDI, LEXAKA ta POCOFINO

POCOFINO.—(*Arroxko. GALTZAUNDI'ri.*) Bakallo-jaliak zeintzuk izan diran arrapatu diat.

RAMOX.—Gauza berriya.

POCOFINO.—Ara emen bat. (LEXAKA'ri *belarritik eldurik.*)

LEXAKA.—(*Karraxi egiñez.*) Ai!, ai!, Belárrik gabe utziko nauk Malko bezala! (POCOFINO'k *jarraitzen dio RAMOX'i belarritik tira naiez.*)

RAMOX.—(*Igesi egiñez.*) Neri berriz “malkoa” ateratzen zaidak eta beok ikutu nere belarriyak! Ez nike “belarri-motz” izan nai.

POCOFINO.—Okerrago dek “lapurra” izatea! Bakallo puska ostu diguzute.

RAMOX.—Ikasi zak itzak erabiltzen iñor mindu gabe! Zera!

LEXAKA.—Gu ez gaituzu ebasle. Pagatzeko asmotan artua genuen bakallo puska gosari gisa. Zenbat den errazu Joxe (GALTZAUNDI'ri.) ta. (*Sakelean eskua sartuaz diru billa.*)

GALTZAUNDI.—Ez da ezer gizona! (*Biok elkarrekin jardunean jarraituaz.*)

RAMOX.—(POCOFINO'ri.) Ik ixkamilla jarri dek bakallo-ezur baten-gatik. Eta nik jakin nai diat zefiek eman dizkion Eskribauari zapatak nere lantegitik artuta.

POCOFINO.—Beriak zizkian eta ondo egin dik etxera eramatia.

RAMOX.—Etxera ez. (*Asarre.*) Ez jauna! Rodriguez'enera! Ori "traiziyoa" dek. Neri kendu "beltz" bati emateko.

POCOFINO.—Ik ez ba dizkiok antolatzen zapata xaarrak eta berriyak min ematen diotela, oñutsik ezin ibilliko dek.

RAMOX.—Ez ba akik ba. (*Zirikatuaz.*) Rodriguez'enera bestee... egiteko batera joan dek Eskribaua. Aren semiaren paperak —ez zapatak— antolatzeraz. Beraz, ago lo, ta Galtzaundinean norbaitek muturra sartuko dik eta geldituko aiz ez lengusu... ez diru.

POCOFINO.—Galtzaundi ta biyok ba zekiagu zertan ari geran! Eta Rodriguez orri nor naizen erakutsiko zioat.

RAMOX.—I? Ez jakin bat!

POCOFINO.—(*Bizi, ta gero ta sutsuago.*) Ta i zer aiz ba? Alper aundi alena ezbestena!

RAMOX.—I berriz "sabelaundi" lotsa galdua!

POCOFINO.—Erren-makur gaiztua!

(*Ia burrukako zorian. GALTZAUNDI ta LEXAKA'k sakabatzen dituztelarik.*)

GALTZAUNDI.—(POCOFINO'ri.) Orain ere ardalla sortu dek ik.

POCOFINO.—Nik ez! (RAMOX'engatik.) Onek.

RAMOX.—Atariko aiziak!! (*Paketuaz.*)

GALTZAUNDI.—Ez zazutela beintzat ojuri egin.

LEXAKA.—Oiek beti "armonin" bizi bear. Musika jotzálleak izateko balio duzute. Errango diogu Gorriti'ri.

RAMOX.—Bai aspaldiko adiskidia det D. Felipe. Nai ba dezute kantatuko degu doñu eder ura!

(*Guziek orfeoi antzera abestuaz.*)

Artza Pilipe Trun la, la
Trun lala, Trun lala
Artza Pilipe trun lala
Trun la trunla la...

(*Parregiñez.*)

LEXAKA.—Gorriti maisuak bezala organua jotzeatik emango nike...

(*Ezin asmatu rik.*)

RAMOX.—Zer emango uke? (*Isekari.*)

LEXAKA.—Ba... “kontrabajua”.

RAMOX.—“Sin trabajua” bai! (*Guziok algaran.*)

LEXAKA.—Bakoitza bere lanera joateko sasoia da. Ni banoa... txokolate egitera. Bestela Lexaka'ri emanen diote fama gaitza.

RAMOX.—Nik txokolate usai gozoa nabaitzeatik zolu-erdiyak jartzen asiko nintzake. Au nazka! Pikiak eskuak zikindu bearra.

POCOFINO.—Guk ere lanian asi biar degu bestela “suziedariak” purrut egingo dik.

GALTZAUNDI.—Astia kostatzen zaiguk. (*Kalebarren aldera begiratuaz.*) Ara nun datorkigun berriz eskribaua!

POCOFINO.—Goiz-txoriya! Birigarrua! Ez ziguk ezer egiten utziko!

RAMOX.—Ni bai ba! Lanian arrapatuko natxiok beingoan. Ariyo!
(*Dijoala.*)

LEXAKA.—(*Au ere etxeruntz abitu rik.*) Ni ez naiz Ramox baño gutxiago. Agur jaunak!

X AGERRALDIA

Lengoak eta ESKRIBAU

ESKRIBAU.—Kirako guziyak bildu zerate. Galtzaundi ta kompañiyya.

GALTZAUNDI.—Sakabanatzen ere asi gera!

ESKRIBAU.—(*Otsegiñez.*) Eh Ramox! Zu Migel! Atozte, atozte! Zuen bearrian naiz.

RAMOX.—(*Etorrias.*) Bertsuak kantatzea nai al du?

ESKRIBAU.—Nere zapatakikua zan. Baiñan egiña dago. Ez zenitun antolatzen eta... Rodriguez'ek konpondu dizkit.

RAMOX.—Or konpon! Ez etorri gero kalluak min ematen dizutela-ta.

ESKRIBAUUA.—Ez! Zurekikuak bukatu ditut. Orain Lexaka'rengana nentorren.

LEXAKA.—Beorrek erran, "nagusi".

ESKRIBAUUA.—Nik eman nizun mandatuaz azturik zaudela edo.

LEXAKA.—Zer ba?... (*Bat batean oroiturik.*) A! egiña dut, egiña D. Sebero.

POCOFINO.—Txokolatia ta "eskonfak" egarria kentzeko.

GALTZAUNDI.—Ago isilik besten pertzan burrunzalirik sartu gabe, mixkindoi!

ESKRIBAUUA.—Zuen denda itxia zegon eta ba dakizu gaur goizerako agindu nizula zortzi arraultzeko almendradun tarta eder bat egi-tea. Zuk dakizun erakua... Migel.

LEXAKA.—Tárta ori egiña dago. Ta labéan sartúa dut gosaldu aurretik.

RAMOX.—Ez ba zayo kixkáltzen?

LEXAKA.—Zuek bai kixkalduko nazutela. Udáko egoaizea baño okerragoak zeáte. Goazen, D. Sebero.

ESKRIBAUUA.—Bai gizona, gaur nere emaztearen urteurrena det eta goizetik poz ori eman nai diot: Lexaka'neko tarta eder bat eskeintzea!

LEXAKA.—Izan ere! Eman zaizkiozu zorionak andre Kontxes'i nere partetik. Anitz urtez! Gure errian dioten bezala!

ESKRIBAUUA.—Zure tartak egingo du zoriontsu. Oso gozo-zalea baita!

GALTZAUNDI.—Guk ere egun on bat opa diogu.

POCOFINO.—Bazkari ederra izango da gaur zuen etxean. "Pelises Pascuas" ta "guen proetxo".

RAMOX.—"Pocofino" muchofino biurtu dek! Erdera txukuna darabilkik. D. Sebero (*Bostekoa eskeñiaz.*) Bejondeizutela! Eskumufiak eta urte askoan andre Kontxes'i, Bilintx'ek zion bezela:

Kantatutzera indar aundiko
Desio batek narama
Kontxesi, zuri nai dizut eman
Mereziya dezun fama...
Gure probintzi Gipuzkoan
Igualik gabeko dama
Bedeinkatua izan dedilla
Zu egin zinduben ama.

(POCOFINO ta GALTZAUNDI'k txalo jotzen diote oi u ta zara-
rata ateriaz.)

- ESKRIBAU.—Eskerrikasko, eskerrrikasko! (*Guzioi esku emanaz.*
 RAMOX'i.) Zapatari baño bertsolari ohea zera.
- RAMOX.—Ni? Elosegí'ren etxeko zapata guziak nik konpontzen ditut eta.
- LEXAKA.—Goazen bada. Nere tartak ematen dit kezka.
- ESKRIBAU.—Oiek ere datozela zure dendara ta ardo-gozo ta galletak artzera konbidatzen ditut.
- RAMOX.—Ori geiegi da D. Sebero. Oraintxe gosaltzia egin degu-ta.
- POCOFINO.—Mistela pizka batekin naikoa degu.
- GALTZAUNDI.—Nik gogorazi nai nioke, eskribau jauna, testamentua gertutzen asi biar duala.
- ESKRIBAU.—Egingo degu, gizona. Ez dezue beriala iltzeko asmorik izango, noski?
- POCOFINO.—Ba-ezpa ez dira gauzak gerorako utzi biar orde... zorrak, abar eta abar...
- RAMOX.—Ni testigu... Ik pagatzen ba dek "ixkritura":

(*Abestiaz.*)

“Oraindaño gelditu
 ba aiz baraurikan
 ez dek gero izango
 Jatekorikan...”

XI AGERRALDIA

Lengoak eta RODRIGUEZ

- RODRIGUEZ.—(*Bere arkupetik ateriaz.*) ¿Pero qué pasa hoy aquí?
- ESKRIBAU.—Que es el día de mi señora y les he convidado a unas copas. Venga usted también.
- RODRIGUEZ.—Aceptao, señor notario, que haiga salud y a mojar el aniversario de su señora.
- POCOFINO.—¡Aniversario no, hombre! En todavía no le han enterrao.
- RAMOX.—Isilik ago astakirtena. Aniversariok urtebetetzia esan nai dik.
- RODRIGUEZ.—¡La “ontomástica”, hombre!
- LEXAKA.—(*ESKRIBAU'ri.*) Oiekin ba zabiltza! Ez gera ñora garaiz eldutzen. Ta tarta labetik ateratzea berandu eginen zait.
- ESKRIBAU.—E! goazen aguro! Rodriguez. ¡Vamos todos!
- RODRIGUEZ.—(*Euskera mordolloan.*) Bai, jauna, bai, “konprendi-txen”. Pero voy a avisar a la parienta.
- ESKRIBAU.—Como usted quiera.

RAMOX.—(RODRIGUEZ'i.) ¡Déjale en paz, hombre! Yo no tomo ese trabajo.

POCOFINO.—Ez bestiak ere. ¡Hala, Rodríguez!

RODRIGUEZ.—¡Voy! (*Denda'ra sartu-irtena egiñez.*)

POCOFINO.—Hoy todos “erribatekos”. Eupa!

LEXAKA.—Zuek berriketan ta nere tarta labean.

ESKRIBAUUA.—Ni ere beldurrez jarri nazu ez ote zaizun puntun aterako.

GALTZAUNDI.—Ikusi ikusi, nun daramaten zuen tarta ori! (MUTIL *bat kale ixkiñan ager bedi tarta daramala. Guziod zerbait esaten dutelarik.*) Tarta! Zorioneko tarta! Ara nun dan tarta!

LEXAKA.—(*Semea dun mutillari itzegiñez.*) Pelíziano norat damakik tarta ori?

AZKEN AGERALDIA

Lengoak eta MUTIL KOSKORRA

MUTIL.—(*Aitarengana urbiltzen dalarik.*) Amak esan dit D. Sebero eskribauarengana eramateko.

LEXAKA.—A! bueno! (ESKRIBAUUA'ri.) Nere emaztea ni baño zintzoago duzu, D. Sebero. Urrea balio du. Eta ari eskerrak ez dugu utsegin Andre Kontxesirentzako tarta. Ikusi beza zer itxura ederra dun!

ESKRIBAUUA.—Alaxen da! Ni ere larritzen asiya nintzan, ez, uste, ez ote ziñan aztu. (*Txanpon batzuek sakeletik ateriaz eta mutillari emanaz.*) Oa lenbaitlen, mutil, eta nere etxean utzi zak.

MUTIL.—Bai jauna, bai!

LEXAKA.—(ESKRIBAUUA'ri.) Ez bezaio deus eman! (*Semeari.*) Ez artu seme!

ESKRIBAUUA.—Ez diot emango, ba! Tira! (*Emanaz.*) Ni nazu nagusi emen! (*Biatzetan ikutu ta mixkatuaz.*)

MUTIL.—Eskerrikasko. (*Dijoala.*)

LEXAKA.—(*Mutillari. Zakar.*) Ez ikutu! Oa! Gero eskolara joan parririk egin gabe.

RAMOX.—Kontsejuak ematea baño ejenplu ona obe.

ESKRIBAUUA.—(*Guzioi.*) Eta orain, zuek, nere andrearen urtebetetzea bustitzera. Goazen! Eta Joxepari eskerrak ematera.

GALTZAUNDI.—Jainkoak eman dezaizuela osasun on!

POCOFINO.—Urte askotan Andre Kontsesi!

RODRIGUEZ.—¡“Saluz” y pesetas!

RAMOX.—Nik zer esan biar det?...

(Abestuz.)

Ta Galtzaundi ta Galtzaundi!
Apellidua dek ori!...

(Guziok abestuz.)

Ta Galtzaundi ta Galtzaundi
apellidua dek Goñi...

O I A L A



Eusebio Erkiaga-k irabazi du Domingo Agirre novela-saria

Eusebio Erkiaga idazle ezagunak irabazi du Domingo Agirre novela-saria 1961 urtean. Igaz tokatzen zan ematea, baiña lanak bialtzeko epea urte bete geiago luzatu zan. Saria —zortzi milla pezetako— Bizkaiko Ahorro Kaxak sortua da Euskaltzaindiari lagunduaz eta irabazi duen novelak tituluz dauka: “Batetik bestera”. Erabakia artu duen juradua osatu dute: Nazario Oleaga, Juan San Martin eta Jose Antonio Loidi jaunak.


Eusebio Erkiaga Lekeitio-n jaio zan 1912 iraillaren 4-an eta gaur egunean Bilbon bizi da. Oso ezaguna da euskal-letren inguruan dabil-tzanen artean eta ainbat sari irabazi ditu orainarte poesia, teatro eta novela sailletan. Ortaz gaiñera bere lan asko euskal-aldizkarietan irakurri litezke. Euskaltzaindiko urgazlea da.

Domingo Agirre novela-saria datorren urtean —1962— ematea tokatzen da berriro.



Gabriel Aresti-k irabazi du 1961

Toribio Alzaga teatro-saria



Gabriel Aresti Bilboko idazle gazteak Toribio Alzaga teatro-saria beraganatu du. Saria —zortzi milla pezetakoa— Bizkaiko Ahorro Kaxak sortua da Euskaltzaindiari lagunduaz, eta irabazi duen teatro-lanak tituluz dauka: “Mugaldeko herrian eginikako tobera”. Sariketara bialdu diran amasei obraren artean aukeratua izan da. Erabakia artu duen juradua osatu dute: Antonio Arrue, Luis Michelena eta Aita Luis Villasante-k.

Gabriel Aresti Bilbon jaio zan 1933 urriaren 14-an eta bertan egin zituan bere estudioak. Indar eta nortasun aundiko idazle bezela ezagutzen da euskalletretan eta euskal-poetarik onenetakoa bezela. Lendabiziko saria lortu zuen 1959 urtean “Loramendi”-ren gorazarrez Euskaltzaindiak egin zuen poesia-sariketean. Bere poesia-zko eta bestelako lanak EGAN-en eta EUSKERA-n irakurri ditezke. Euskaltzaindiko urgazlerik gazteena da.

Toribio Alzaga teatro-saria urte birik bein ematen da, eta 1963 urtean ematea tokatzen da berriro.

1962 Domingo Agirre

Novela-sariaren oinarririk

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oinarririk auek dira:

a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke novelak.

b) Gaia nai dan bezelakoa izan diteke, eta lanak nor berak egina izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.

d) Izkribuak makina idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50×22 gutxi gora beera) gutxienez 150 folio dituala.

e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu ezina.

f) Saria, gabe gelditu diteke egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.

g) Batzarrea Bizkaiko Ahorro Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez, lanak bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.

h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6-BILBAO) 1962-gko. uztailaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.